

Euskara plangintzak lan munduan

2002ko uztaila

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. SARRERA. | 4 |
| 2. LAN MUNDUKO EUSKARA PLANGINTZAK, BESTE ESPARRU BATZUETAKO PLANGINTZEN ARTEAN. | 5 |
| 2.1.-Enpresak kokatu. | 7 |
| 3. BI ENPRESETAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK ERABILERA PLANGINTZA MARTXAN JARTZEAN. | 9 |
| 3.1.-Zer dela eta euskara plangintza bi enpresa hauetan? | 11 |
| 3.2.-Plangintzaren izaera eta metodologia | 15 |
| 4. EUSKARAREN EGOERA PLANGINTZA MARTXAN JARRI ZENEAN (ARLOZ ARLOKO AZTERKETA). | 18 |
| 4.1.-A enpresa | 20 |
| 4.2.- B enpresa | 23 |
| 5. ENPRESEN HELBURUAK | 27 |
| 6. PLANGINTZA MARTXAN JARTZEA | 31 |
| 6.1.-Erabilera taldeak | 32 |
| 6.2.-Erabilera taldeen osaketa | 35 |
| 6.3.-Erabilera taldeetako dinamika hiru urteko epean | 35 |
| 6.3.1. A enpresa | 36 |

| | |
|--|-----------|
| 6.3.2. B enpresa | 38 |
| 6.4.-Euskalduntze alfabetatze ikastaroak | 41 |
| 6.5.-Euskara Batzordea | 45 |
| 6.6.-Laneko zuzenketak eta itzulpenak | 48 |
| 6.7.-Plangintzan partehartze zuzena ez dutenak | 50 |
| 6.8.-Aldaketaren sustatzaileak | 54 |
| 6.8.1. Kanpo eragileak | 54 |
| 6.8.2. Barruko eragileak | 57 |
| 6.8.3. Motibazioaren garrantzia | 59 |
| 7. EBALUAZIOA | 62 |
| 7-1. Euskararen erabilera esparruz esparru, hiru urteren ondoren | 64 |
| 7.1. 1 enpresa | 65 |
| 7.1. 2 enpresa | 67 |
| 8. ONDORIOAK | 77 |
| 9. BIBLIOGRAFIA | 79 |

1.- SARRERA

Proiektu honen helburua, hizkuntzaren erabileran aldaketak eman nahian, euskara plangintza martxan jarri zuten bi enpresen arteko konparaketa bat egitea da. Beraz, lan munduan zentratu behar dut nire lana.

1990ean enpresa munduan hizkuntzaren normalizaziorako egitasmoak martxan jarri zirenetik, Antzuolako Elay enpresa dugu horretan aitzindaria, asko dira prozesu honetan murgildu direnak edo murgiltze fasean daudenak.

Egia esan, hizkuntza gutxiagotu baten normalkuntza bideratzea gai konplexua da, erronka handiei aurre egitea suposatzen du eta ez da eginkizun samurra horretan asmatzea eta aurre egitea. Honelako proiektu baten atzetik pertsonak baitaude eta pertsonen arteko harremanetan aldaketa bat txertatzea eta finkatzea ez da egun batetik bestera egiten den lana.

Aldaketa linguistikoa eman behar den gizarte, hizkuntza komunitate edo errealitate sozial horretan sei maila bereiztu behar dira: ekosistema, komunitatea, sektorea, antolakuntza, taldea eta norbanakoa. Nik jorratu behar dudana proiektua antolakuntzaren barruan dago eta konkretuki bi enpresari lotutako euskara plangintzak dira. Herri berean kokatutako bi enpresa baina egoera soziolinguistiko oso ezberdinekin.

2.- LAN MUNDUKO EUSKARA PLANGINTZAK, BESTE ESPARRU BATZUETAKO PLANGINTZEN ARTEAN

Euskara gaztelaniarekin eta frantsesarekin elkarbizi den hizkuntza dugu. Batzuen ustez Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoen artean kokatzen da. Urte askotan euskarak bizi izan duen egoera ez da gozoena izan eta une honetan, hainbat lurralde eta esparrutan bizi duena ere ez da oso atsegina. Gurea, lurralde aberatsa da eta industriak orain dela berrogeita hamar urtetik hona, berebiziko garrantzia izan du. Urte gutxiren buruan nekazaritzatik bizi zen herri bat izatetik, industriak pisu handia izatera ekarri zuen. Honek, eskulanaren beharra sortu zuen eta nonbaitetik jendea ekarri behar zen. Ondorioz, egoera hain ona ez zen beste toki batzuetatik gurera ehunka lagun etorri ziren.

Honekin batera egoera politikoa bera ere ez zen onena, diktadura baten menpean bizi zen herria eta oinarri oinarrian gure kultura suntsitu egin nahi zuen. Agian egoera une hartan bestelakoa izan balitz, gurera etorri ziren inmigrante horiek, gure hizkuntzan ohitu eta hitz egitera ere iritsiko ziren. Gure artean ordea, oraindik ere badira urte mordoa gure artean eraman arren euskaraz gutxi edo batere egiten ez dutenak.

Hori zela eta, gure hizkuntza zaharra galtzear egon zen baina familia askotan hizkuntza oso sustraituta zegoen eta kalean euskaraz ez egiteko mezua jaso arren, etxean euskaraz hitz egiten zen. Horri esker gaur egunerarte iritsi da. Egoera politikoa aldatzen hasi zenean, herritarren bultzada izan zuten hainbat ekimenek ikastolen mugimenduak esate baterako. Borondatea eta militantzia gauza garrantzitsuak ziren orduan. Pixkanaka

gauzak aldatzen joan dira eta euskara biziberritzearen erantzukizuna administrazioaren esku utzi da, gero eta profesionalagoa da.

Lan munduko planetara arteko ibilbidea ez da egun batetik besterakoa izan. Aurreraxeago ere aipatu dut, orain dela 30 urte ikastolen mugimendua eta kaleko jendeak martxan jarritako borondatezko prozesua funtsezkoa izan zela.

Ordutik, euskara biziberritzeko asmoarekin ahalegin garrantzitsuak egin dira; esate baterako hezkuntzan. Euskal Herri mailan gero eta ugariago dira seme - alabak eredu euskaldunetara bidaltzen dituztenak, irakasleak euskalduntzeko indar handia egin da. Administrazio mailan ere ahalegin batzuk egin dira, langileria euskaldunduz eta euskara laneko erreminta izateko trebatuz. Bidea oraindik luzea da. Hezkuntza arloa euskalduntzeak euskararen ezagutza handitzea ekarri du berekin.

Herri merkataritza euskalduntzeko asmoa, osasun munduko egitasmoak, e.a. egin dira. Eta horrela urte asko ez dela lan mundura iritsi ziren mikroplangintzak. Dagoeneko urte mordoska badira, Antzuolako Elay enpresan euskararen erabilera handitzeko plangintza martxan jarri zenetik. Ondoren Ikerlan eta CAF enpresak Arrasate eta Beasainen, lan berarekin hasi ziren. Baina horiek guztiak urruti samar geratu dira eta gaur egun enpresa askotan euskara ikasteko ekimenak bultzatu dira, euskara batzordeak sortu eta kanpo enpresen aholkularitzarekin batera euskara plangintzak antolatu dira.

2.1.- ENPRESAK KOKATU

Enpresa biak kokatuta dauden herrian, %73a euskal hiztuna da. Herria bakarrik ez, bailara bera kokatzea ere garrantzizkoa iruditzen zait, Gipuzkoako Debagoiena dugu hain zuzen ere eta ezertan hasi aurretik bailara honetan lan munduan erabilera handitzeko egin den ahalegina aipatzekoa dela uste dut.

Noski horretarako arrazoi batzuk badaude eta ez ditut aipatu gabe utzi nahi.

- Debagoiena bailaran euskararen ezagutza handia da % 66 ingurukoa.

- Erabilera berriz, kale neurketako azken datuen arabera, % 43,7koa da, 1997ko neurketatik 3 puntuko igoera izan du.

- Bailarako eskoletan, haur hezkuntzatik hasi eta batxilergora iritsi bitartean eredu elebidunetan dabilzan ikasleak asko dira, % 86 inguru. Bestalde, Mondragon Unibertsitatean ere ikasle ele bidunak gero eta gehiago dira % 90era hurbiltzen dira. Datu hau benetan azpimarratzekoa da, lan munduan sartzen direnerako, euskaraz jasoko dutelako prestakuntza eta hori da lehenengo urratsa. Arrazoizkoa da lan munduan euskara plangintzak martxan jartzea; enpresa mundua lantzen ez baldin bada, euskaraz ikasten duten ikasleek errealitate erdaldun batekin topo egingo dute. Beraz, garrantzitsuena gazte hauek bideak zabalik aurkitzea da, lana euskaraz egitera iritsi ahal izateko.

- Komunikabideek ere indar handia dute, ezin dugu ahaztu Arrasate telebista izan dela, hedapen handiagoa duten beste telebista batzuetara salto

egiteko harrobia. Gaur egun bailarako herri aldizkari guztiek bat egin dute eta herri guztietarako bakarra ateratzen dute.

- Bailarako euskara elkarteak indartsuak izan dira.

-Enpresetan euskara batzordeak egotea ez da harritzekoa. Euskara irakaskuntzan, administrazioan e.a. gero eta gehiago hedatzen ari den bezala, lan munduan ere ez da gai arrotza dagoeneko, gero eta enpresa gehiagotara zabaltzen ari dira mikroplangintzak.

Datu guzti hauekin batera, ezin dugu ahaztu bailara dela kooperatibismoaren sorlekua eta kooperatibismo espirtuaren azpian, beti egon dela kulturarekiko konpromisoa, inguruko ekimen eta elkarte kulturei laguntza eskainiz eta euskararen erabilera eta ikaskuntza bultzatuz, Arizmendiarrietaren espirtua gogoratu besterik ez daukagu.

Kooperatibismoak langileen partehartzea bultzatzen du eta beti komunitatearen zerbitzura.

Pertsona da Arizmendiarrietaren pentsamenduaren abiapuntua. Pertsona aske heldu eta duinen esku dago giza duintasunaren neurriko komunitatea eratzea. Benetako iraultza pertsonen kontzientzian eraldaketaren bidetik etorriko da.

Berak proposatu zuen gizarte eraldatze proiektuan pertsonak toki berezia hartzen du: pertsonari so eta gizartean barruan begira dago eraldaketaren gezia.

Eta pertsona bakoitzari egin nahi diot honelako aipamena, kooperatiba barruan hauetako bakoitzak duen garrantziagatik. Egia da pertsonak ez daukala inondik inora balio bera, gaur egungo kooperatibismoaren barruan eta orain dela berrogeitaka urte . Hala ere, bada kontuan izatekoa. Pertsona


berak askea izan behar du eta horrela ez bada ez du duintasunik izango. Askatasuna lortu beharreko helburu bat da, baina norberaren askatasunak besteen askatasuna onartzen du ezinbestean. Aldi berean gizakiak askea eta sortzailea izan behar du.

Beraz bi enpresa hauek kooperatibismoaren barruan kokatu behar ditugu eta honen oinarrian beti egon da balore moduan hezkuntza eta noski, aldi berean kulturako elementu garrantzitsu bezala urteetan erabili ohi den hizkuntza zaharra , euskara alegia.


Honekin batera pertsonari daukan garrantzia eman nahi diot, mota honetako enpresen barruan erabakiak, enpresa osoaren onespenerekin hartzen direla kontsidera baitezakegu eta modu batera edo bestera honek bere pisua badauka enpresa batean kokatzerakoan.

3.-BI ENPRESETAKO DATU SOZIOLINGUISTIKOAK ERABILERA PLANGINTZA MARTXAN JARRI ZENEAN

A ENPRESA



B ENPRESA



Herri berean kokatuta egon arren, egoera zeharo desberdina zuten bi enpresa hauek.

Lehenengoan euskal hiztunek pisu handia zuten eta gainontzekoentzako ere euskara ez zen hizkuntza arrotza, entzun behintzat egiten zuten. Euskal hiztunen artean alfabetatu kopuru handiagoa tailerrean kokatuta zegoen eta gutxiago bulego aldean. Horrek aurreikusten zuen, idatziz hizkuntza gehiago erabiltzen zutenen artean, zailtasun gehiago izango zirela. Langile kopurua 150ekoa zen, bi negozio desberdinetan kokatuta.

B enpresan berriz, euskal hiztunak % 47 ziren, erdia baino gutxiago eta gainontzeko % 53a erdal hiztuna edo erdizka zekiena. Erdizka zekiten horien artean, ulermen maila altua dutenak bai, baina euskara erabiltzeko ohitura handiegirik ez zutenak.

Langile kopurua 210 langilekoa hiru negozio unitate desberdinetan banatuta, hiru negozio independente eta zerbitzu orokor komunak. Hiru negozioetako egoera soziolinguistikoa ere desberdina, negozio batean euskal

hiztunen kopurua handiagoa eta beste bietan tailerretako erdal hiztun kopuru handiak, euskal hiztunen kopurua jaisten zuen.

Beraz, bi enpresak osotasun batean begiratuta ikus daiteke, egoera soziolinguistikoa desberdina dela, abiapuntua desberdina zen beraz. Inolako azterketarik eta plangintzarik jarri gabe aurreikus zitekeen A enpresan euskararen erabilera bultzatzeko askoz aukera handiagoak zeudela.

Enpresa biek ere berrogei urtetik gorako ibilbidea dute eta epe horretan izan duten hazkunde, bilakaera eta teknologien hedapena izugarria izan da.

Oinarri oinarrian bi enpresak kooperatibismoaren barruan daudenez, jarraitzen dituzten baloreen artean, bezeroen gogobetetzea, lankidetzeta, partehartzea, nazioartekotzea, e.a. daude. Eta aldi berean lehentxeago aipatu dudana bezala kooperatibismoaren azpian kultura babesteko eta bultzatzeko esfortzua ere hor dago. Beraz, inongo arauditan jasota ez badago ere susmatzen den zerbait da.

3.1.- ZER DELA ETA EUSKARA PLANGINTZA BI ENPRESA HAUETAN

Plangintzak toki askotan jarri ohi dira martxan, eskola batean plan dozentea egin liteke edo obra bat planifikatu edota gaitzei aurre hartzeko prebentzioaren planifikazioa egin liteke

Bestalde, planifikatzeak berekin dakar helburu eta ekintza zehatzak epe jakin baterako jartzea eta epeak bete ahala, baita jarraipen edo ebaluaketa egitea, noraino iritsi den ikusteko.


Eta niri aztertzea dagokidan hau, euskararen erabilera handitzeko bi enpresatan martxan jarritako plangintza da.

Plangintza hitzaren inguruan definizio desberdin asko eman dira baina ni batekin geratzen naiz, honekin alegia, “ plangintza batek etorkizuna aldatu nahi du, helburu lorgarri batzuk jarriz eta lortzea ahalbideratzeko plan eta programa zehatzak garatuz”.


Niri dagokidan kasuan euskararen presentzia handitzeko asmoarekin jarri zen plangintza. Baina, zer zela eta euskara plangintza martxan jarri? Enpresak berak hartu zuen erabakia? Zerk bultzatu zuen erabaki hau hartzera?

A enpresa erabat euskalduna izanik, jendearen jarrera euskararen aldekoa zen, aurretik ere honelako ekimen batean sartzeko ahalegina egindakoa eta une egokia zela pentsatuz lanari ekin zion.

B enpresan, langile euskaltzale batzuegandik atera zen ideia. Enpresan euskarari tokia egiteko beharra ikusten zuten, eta hasteko euskalduntzeko zegoen premia ikusirik, euskara eskolak antolatu zituen plangintza martxan jarri baino urtebete lehenago, orduko euskara batzordeak. Enpresako irudi orokorrean ere eragina izan zuen prozesu hasiera honek neurri txiki batean. Baina haratago jo zuen euskara batzordeak, zerbait lortzekotan plangintza bat burutu beharra ikusten zuen. Beraz, gutxi batzuen ekimena zen hura zuzendaritzan aurkeztu, onartu eta planifikatzeari ekin zitzaion. Garbi dago gizarte bizitzako ekintza oro erabaki baten ondorio dela. Kasu honetan Euskara Batzordeak, kanpoko enpresa baten aholkularitzarekin egitea erabaki zuen.



Enpresa honen kasuan Euskara Batzordeak buruan zerabilkien ideia hori enpresako organoetan aurkeztu zuen eta onartu egin zuen. Euskara plangintza berak eskatuta martxan jarri zen. Hala ere, hasiera batean beste enpresa batzuk lan honetan hasita egoteak enpresa hau ere bultzatu zuen, baina esperantza handiegirik gabe, zer gertatuko zen oso ondo jakin gabe. Edozein plangintzatan bezala eragile mota desberdinak daude, prozesua aurrera atera dadin. Alde batetik plangintza egitea proposatu eta erabakitzen dutenak, Euskara Batzordeko kideak eta bestetik zuzendaritza batzordeko kideak eta plangintzaren eragina jasoko dutenak, langile guztiak.



Eragile horien indarrarekin enpresan erabilera plangintza martxan jarri zen bi enpresetan eta helburu orokor batekin, euskararen presentzia handitzen joatea, horretarako metodologia bat martxan jarri zen, ikuspegi partehartzailea martxan jarritz, hau da ahalik eta jende kopuru gehienak parte hartuz, eskema goitik beherakoa eta behetik gorakoa planteatuz, aukerak eta mehatxuak aztertuz, norabidea finkatu eta proiektuak egokituz. Plangintzak noski, aplikazio eremu batzuk zeuzkan, kasu honetan enpresako tailerra eta bulegoak, hiru urteko iraupena izango zuen eta enpresa osoan izango zuen eragina modu batera edo bestera.

3.2.- PLANGINTZAREN IZAERA ETA METODOLOGIA

Edozein plangintzaren helburua izango da, eraldaketa prozesu bat bideratzea eta niri orain aztertzea dagokidana hain zuzen ere, bi enpresetan euskarak normalizazio bidea har dezan urratsak ematen hastea da kasu batean eta bestean eguneroko jardunean murgiltzea. Ez da batere erraza aldaketa hori aztertzen ari garen gai honen inguruan ematea, prozesua sustatzen dutenak dauden bezala, mugatzaileak ere badaude eta.

Aztertu behar ditudan bi enpresa hauetan plangintzak barrura begira jartzea erabaki zuen zuzendaritzak, hau da, eraldatu nahi zena barruko egoera zen, langileen arteko eguneroko elkarrizketak, beraiek trukutzen dituzten mezuak, betetzen dituzten inprimakiak, erabiltzen dituzten aplikazio informatikoetako menuak e.a. Kanpora begira proiektatzeko asmorik ez zeukaten, nahiz eta konturatu gabe hainbat arlotan euskara erabili, bezero euskaldunekin euskaraz hitz egin eta idatziak trukutzen dituzte edota udaletxean aurkeztu beharreko idatzietan ere euskara erabiltzen da. Hasieran behintzat horretan indarrak sartzeko asmorik ez zegoen, barruan plangintza inplantatzeak zer ekarriko zuen ere oraindik ez zegoen eta, batere garbi.

A enpresaren kasuan, egoera aldaketaz berehala konturatu ziren, beraien funtzionatzeko moduan beste posibilitate edo aukera batzuk aurreikusten zirela eta, horrek segurtasun falta sortzen zuen eta are gehiago aldaketa hori emateko gaitasunik ez zutenengan, hau da, karpitetako etiketatxo batzuk jarri behar edo idatzi sinple bat sortu behar eta, izugarritzko

ziurtasun eza zutenengan. B enpresaren kasuan kostatzen zen hau lortzea, aurreko egoera babesten zutenen kopurua handia zen. Aldaketak etor zitezkeela bai baina horrek egiturari sor zezakeena ez zuten ikusten. Esango nuke hasierako urratsetan nahiko nora ezeran ibili zela, ez baitzen oso argi ikusten prozesua. Eta hortik eta plangintza bera finkatu arteko bidea luzea izan da, aldaketa eman, lehengora itzuli, gogorarazi, berriz ere aldaketa eman, ohiko lanak izan ziren hasiera haietan eta gaur egun oraindik ere, askotan egin behar izaten dira lan hauek. Azken finean erresistentzia jartzen baitzieten ordura arteko funtzionatzeko modua aldatzeari.

Arrazoiak honako hauek izan daitezke:

1.- Maila pertsonalekoak.

Enpresa bietan ere ohitura oso finkatuak zituzten eta noski ezagutzen ez dugunari beldurra izatea, gizakion izatea da azken finean. Honelako iritziak entzuten ziren “ zer toki izan dezaket nik enpresa honetan hemendik hamar urtera?” Hemendik aurrera sortzen dugun guztia ele bietan sortu behar al dugu? Nik ordea, ez dut sekula euskaraz idatzi. Esaldi hauek oso ohikoak ziren eta oraindik orain ere, honelakoak ez bada ere, oso antzekoak entzuten dira.

2.- Gizarte sistemarekin lotutako erresistentziak.

Enpresa munduan gaztelania oso finkatuta zegoen eta gaur egun oraindik ere hala dago. Bi enpresa hauetan egoera aldatzen hasi da baina askotan ematen du hala izan behar duela, kulturalki finkatutako hizkuntza gaztelania izango balitz bezala. Askotan gainera, enpresakoen artean beldurra ere izaten da hizkuntza hori kanpora ateratzerakoan, bezeroengana, administraziora, edo beste erakunderen batera. Baina hasieran esaten nuen

bezala, jende asko ez da konturatzen atzetik datozen belaunaldiak euskaraz ikasiak datozela, honekin ez naiz egia osoa esaten ari. Konturatu egiten dira horretaz, baina ez belaunaldi hauek ateak irekiak behar dituztela ikasitako hori lan munduan garatzea nahi baldin badugu.

3.- Azkenik aldaketa egiteko moduarekin lotutako erresistentziak egon daitezke eta hemen pertsona guztiak kontuan hartzea, aldaketak egiteko denbora eta bitartekoak sartzen dira. Benetan gai zaila, konplexua, korapilatsua eta asmatzen zaila. Honen adibide garbia B enpresan gertatu zitzaidana da, enpresan sartu eta plangintza martxan jarri zen, baina hasiera inkestetan baiezkoa emandako euskal hiztunekin eman genuen. Berehala konturatu ginen, enpresako partaide guztien kontua zela eta modu batera edo bestera enpresako guztiengana iritsi behar genuela, beldurrak eta aurreiritziak kentzeko besterik ez bazen ere.

Garbi dago prozesu hauek ez direla linealak, ez dutela beti gora egiten. A enpresaren kasuan goranzko bidea berehala hartu zuen eta iritsi ere maila dezentera iritsi zen, beheko bidea ere izan zuen eta une honetan egoera egonkortu egin da, erabaki handi samarrak hartzeko garaia iritsi delako.

B enpresan berriz, gorako bide hori hartzea izugarri kostatu zen, nora ezean batetik bestera, gauzak aldatzen hasi bai baina berriz ere aurrekora bueltatzea behin baina gehiagotan gertatu da. Hirugarren urtea betetzear dago oraintxe eta gora bide hori oraintxe hartu du eta gorabeherak izugarriak izan dira.

Hala ere, edozein plangintzatan oso kontuan eduki behar ditugu pertsonak eta beraien arteko harremanak, horiek ez lantzeak ekar dezake porrota edo plangintza bertan behera geratzea.

Planifikaziorako bi eredu daude normatiboa eta estrategikoa eta guk bi enpresa hauetarako aukeratu duguna bigarrena da, alegia, adituekin batera inplikaturako pertsonak dute garrantzia, helburuak adostasun sozialetik sortzen dira, eragileen partehartzea azpimarratzen du, e.a.

Hauek esan ondoren esan behar dut bi enpresa hauetan eman ziren urratsak honako hauek izan zirela:

1.- Egoeraren diagnostikoa. Zer aldatu behar den jakiteko abiatzeko egoera zein den ezagutu behar da.

2.- Helburuak jarri.

3.- Helburu bakoitzak ekintza batzuk izaten ditu epe jakin batzuetarako.

4.- Ebaluaketa.

Nik egitura hau jarraituko dut eta hasteko egoeraren diagnostikoa eginez hasiko naiz.

4.- EUSKARAREN EGOERA PLANGINTZA MARTXAN JARRI ZENEAN (ARLOZ ARLOKO AZTERKETA)

Bi enpresa hauetan epe beretsuan erabaki zen euskara plangintza martxan jartzea eta bideragarritasun txostena egin zen lehenik, honen bitartez enpresaren argazki orokor bat atera zen, enpresan bertan jasotako informazioarekin. Emandako datuak langile kopurua, euskal hiztun kopurua,

bezero eta hornitzaile euskaldunekin dituzten harremanak, organigrama izan ziren eta horrekin batera zuzendaritza orokorreko dozena erdi bat kiderekin elkarrizketak egin ziren. Horrela enpresaren argazki orokor bat atera genuen, eta bi enpresek diseinua enpresa osorako egitea proposatu arren negozio batetik bestera aldeak bazeudela konturatu ahal izan ginen. Bideragarritasun azterketa batek, enpresa hauek baino handiagoak diren kasuetan, sekzio edo sail batzuetatik hasteko aukera ematen du.

Ondoren diseinua egiteko garaia etorri zen eta fase honetan enpresako langile guztiek inkesta bat bete zuten. Honen helburua, euskararen inguruko ezagutza eta erabilera jasotzea zen, bai lan munduan baita lanetik kanpo ere, etxean, lagunartean e.a. Aldi berean plangintza martxan jarriko balitz, bakoitzaren egoera pertsonaletik abiatuta, plangintzan sartzeko, parte hartzeko eta konpromisoez galdetzen zitzaien. Galdetegia aprobetxatu zen, euskara plangintza ukitzen zuten hainbat gairen inguruan bakoitzak zuen jarrera ezagutzeko, euskararen erabileraz eta kontratazioetan eragiteko aukeraz galdetu zitzaien besteak beste.

Hori bakarrik ez zen ordea nahikoa, euskararen erabileraren inguruko diagnostiko zehatza egiteko, enpresan bertako eragileekin elkarrizketa gehiago egin ziren. Oraingo honetan organigraman jaitsi egin ginen eta guztira hogeita hamar elkarrizketa inguru burutu ziren, ahozko erabileran, zein pertsonarekin zituen harremanak, bilerak zein hizkuntzatan egiten zituen eta idazterakoan zer idazten zuen bakoitzak, plantilak, aktak, bilera deialdiak e.a. jasotzen saiatu ginen. Eta honekin enpresa bakoitzaren diagnostiko zehatza egin zen. Honaino enpresa batean eta bestean emandako urratsak berdinak izan dira. Egoera

zein zen jaso ondoren, enpresa bakoitzerako helburu zehatzak markatzen hasi ginen. Horretan hasi aurretik enpresa bakoitzean erabilera zenbaterainokoa zen aipatuko dut, ideia bat egiteko, amaieran eman diren aurrerapausoak aipatuko ditudan bezala.

4.1.- A ENPRESA

Enpresa hau ehuneko handi batean euskal hiztuna da lehenago esan dugun bezala.

1.-IRUDIA

Irudi aldetik ate eta biltegietako identifikazioak euskaraz bakarrik zeuden. Bulegoetan zeuden karpeta gehienak gaztelaniaz zeuden, sail konkretu batekoak izan ezik, bertako partaideek zuten jarreraren arabera. Tailerrean makinei jartzen zaizkien identifikazioak, biltegiko kaxoitxo guztiak, ehunka gaztelaniaz bakarrik zeuden.

Fotokopiagailu eta kafe makinetako argibideak gaztelaniaz bakarrik zeuden.

2.- AHOZKO ERABILERA

Ahozko erabilerari dagokionez ia erdiak ziren euskaraz errazago moldatzen zirenak. Telefono deietan salto handiak ematen zituzten, tarteka euskaraz, hurrena gaztelaniaz. Lan bilera dezente euskaraz egiten zituzten

baina salbuespenak bazeuden. Bilera hauetan gai teknikoak jorratzerakoan gaztelaniara jotzen zen. Eguneroko ahozko harremanetan euskara asko erabiltzen zen, hala ere, urteetako ohiturak ere hor zeuden eta askotan beraiek ez konturatu edo ez aitortu arren gaztelania erabiltzen zuten.

Euskal hiztunek erdizka dakitenekin gaztelaniaz egiten zuten eta gainera batzuetan erdalduntzat zituzten, euskaraz ulertzeko edota hitz egiteko gauza izan arren azken hauek.

3.- IDATZIAN

Idatzian euskara erabiltzen zutenak laudenera ere ez ziren iristen, gaztelaniaz idazten zuen gehiengoak.

Ohar tauletako informazio gehiena ere gaztelaniaz argitaratzen zen.

Lan bileretako aktak eta dokumentazioa, salbuespenak salbuespen gaztelaniaz zeuden.

Enpresan langile berriak sartzen zirenean, idatziz banatzen zen informazio guztia gaztelaniaz banatzen zen.

Prestakuntza saioak enpresan bertan, bertako langileek ematen zituzten kasu batzuetan eta kanpotik ere etortzen ziren beste batzuetan irakasleak baina euskaraz ez zen idatzirik banatzen.

Inprimaki ereduren batzuk ele bitara bazeuden arren, bete gaztelaniaz betetzen ziren.

4.- APLIKAZIO INFORMATIKOAK

Aplikazio informatikoak guztiak gaztelaniaz zeuden, bai enpresan bertan sortzen zituztenak edota beste enpresa batzuen laguntzarekin sortzen zirenak.

Euskarazko zuzentzaile bat badago sarean baina gehienek jakin ere ez zekiten zegoenik ere, eta erabilpena oso txikia zen.

5.- JARRERA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Hau jasotzeko inkestetako datuez baliatu ginen. Orokorrean enpresa osoak euskara planaren aldeko jarrera zuen % 96ak. Alfabetatze edo euskalduntze ikastaroetara joateko asmoa ere bazuen ehuneko laurogeiak eta portzentaje hori zen euskaraz lan egingo zuten zirkuluak osatzearen alde zegoen kopurua ere. Kontratazio berrietan euskara kontuan hartzea % 77ak ondo ikusten zuen.

6.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Enpresan ez zegoen ezarrita hizkuntza irizpiderik ez kontratazioan, ez enpresaren irudian, ezta idatzian ere. Hala ere, kontuan edukitzen da hizkuntza, telefonariak telefonoa hartzen duenean enpresaren izena bakarrik esaten du eta nongoa den ziurtatzen duenean hizkuntza horretara moldatzen da.

Idatzian irizpide finkorik ez dago; batzarren batean bertako akta euskaraz banatzea erabaki zen eta hala egiten zen orduan. Gainontzean bakoitzaren esku dago ahozkorako zein idatzirako irizpideak hautatzea.

Diagnostikoarekin amaitzeko ez dut aipatu gabe utzi nahi baliabide material aldetik, hainbat liburu, hiztegi bazeudela plangintzarekin hasi aurretik.

4.2- B ENPRESA

B enpresan, euskararen egoera plangintza martxan jarri zenean honako hau zen, aurreko kasuan bezala sei esparru desberdinetan.

1.- IRUDIA ETA ERROTULAZIOA

Enpresaren kanpo aldeko identifikazio batzuk eta tailerreko nahiz bulegoetako errotulu nagusiak, ele bietara zeuden une hartan. Salbuespenen bat kenduta bulegoetako armairuetako identifikazioak, eta karpeten etiketatxoak gaztelaniaz bakarrik, beste hainbeste horma-irudi, ohar tauletan oharrak sailkatzeko erabiltzen ziren errotuluak.

Tailerrera joanez gero berriz, piezen identifikazio apalak, armairutxoak, materialak pilatzeko guneen izenak gaztelaniaz zeuden. Kafe makinaren errotulazio guztia ere gaztelaniaz.

2.- AHOZKO HARREMANAK

Telefonoa hartzerakoan erabiltzen zen lehen hitza, enpresaren izena bakarrik izaten zen, eta telefonoaren beste aldean dagoen pertsonaren arabera euskaraz edo gaztelaniaz egiten zen ondoren. Enpresako lankideei kanpoko deiak pasatzerakoan euskara erabiltzen zela esan arren, gaztelania erabiltzen zen maiz.

Bileretan sartuz, alde batetik enpresako organoetako bilerak zeuden, Zuzendaritza Batzorde Orokorra, Negozio bakoitzeko Zuzendaritza, Kontseilu Errektorea eta Kontseilu Soziala guztiak gaztelaniaz egiten ziren eta bestetik sail bakoitzak nahiz sail desberdinen artean egiten ziren bilerak, guztiak gaztelaniaz. Enpresako despatxu guztiak gaztelaniaz egiten ziren, euskaraz egiteko aukerak egon bazeuden arren. Euskaraz egiten zirenak izen konkreturik ez zuten, bizpahiru lagunen artekoak izaten ziren gehienetan.

Urteko hiru Batzar Orokorretan ahozko erabileran euskarak bazuen tokitxo bat, ez ordea batzar orokorraren aurretik negozio bakoitzean egiten ziren batzar informatiboetan.

Egunero gai formal edo informalen inguruan euskaraz hitz egiten zuten euskal hiztunak bazeuden, baina urteetako ohiturak, jarrerak zirela kausa gaztelania kasu gehiagotan. Eta hau askoz nabarmenago emakumezkoen artean ematen zen. Inkontzienteki egiten zuten, beraien inguruko guztia gaztelaniaz zegoen eta hizkuntza horretara ohituta zeuden.

Euskara erdizka edo zertxobait zekitenekin, euskaraz hitz egitea burutik pasa ere ez zitzaien egiten eta askotan sorpresak hartu ere bai, euskaraz ez zekitela uste eta benetan jakin.

3.- IDATZIZKO HARREMANAK

Enpresa mailan zabalkunde handia duten dokumentu asko banatzen dira batez ere Pertsonal sailetik edo organoetatik, Kontseilu Errektoretik batik bat, hauek ohar taula orokorretan jartzen dira edo banan-banan langile guztiei banatzen zaizkie nominarekin batera. Guztiak gaztelaniaz sortzen ziren 1999an.

Negozio bakoitzeko ohar tauletan, produkzioarekin, kalitatearekin, segurtasunarekin lotuta taula, grafiko eta idatzi asko jartzen dira. Hauek guztiak ere gaztelaniaz egiten ziren.

Inprimakien plantila gehienak, guztiak ez esatearren gaztelaniaz bakarrik zeuden une hartan, oso arraroa zen euskaraz ikustea. Kontseilu Sozialeko akta da enpresa osora zabaltzen den dokumentua eta han ere gaztelania egiten zen. Hori horrela izanik, ezin egon gainontzeko organoetako aktak eta bilera deiak euskaraz, ezta departamentuetakoak ere. Kasu hauetan bilera deiren batean eguna, ordua eta tokia jartzen ziren euskaraz baina gainerako guztia gaztelaniaz.

Ahozko erabileran batzar orokorrean euskarak tokitxo bat zuen bezala, idatzian ere bai, bilera deiak, bozketarako paperak, idatzi laburrak euskaraz ere

banatzen ziren. Azkenik esan, prestakuntzarekin zerikusia zeukan dokumentazio guztia gaztelaniaz banatzen zela.

4.- APLIKAZIO INFORMATIKOAK

Lantegiko aplikazio informatiko hedatuena Windows-a, eta testu prozesadorea Word, Excel eta guztiak gaztelaniaz zeuden. Une hartan intranetik ez zegoen baina jartzeko asmoa bazegoenez helburuen artean sartzea interesgarria zirudien.

Euskarazko zuzentzaile ortografikorik zegoenik ere ez zekiten. Enpresan orduan Kontseilu Errektoreko idazkaria zenak, Elhuyar hiztegia zeukan CD-an eta Uzei-ren enpresa hiztegia ere erabiltzen zuen.

5.- JARRERA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Lehen aipatu dudan bezala atal hau jasotzeko inkestetako erantzunez baliatu ginen eta enpresako % 97ak enpresan plangintza martxan jartzearen aldeko iritzia agertu zuen eta %2a kontra. % 80 inguru euskara ikasteko edo hobetzeko alde zegoen; portzentaje bera euskaraz lan egingo duten zirkuituak osatzearen alde zegoen. Kontratazioetan euskara kontuan eduki behar zela ziotenak % 50era ere ez ziren iristen eta % 67 lanerako bitartekoak euskaraz izatearen alde zegoen.

6.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Atal honekin bukatzeko aipatu behar dut, ez zegoela enpresa mailan inolako hizkuntza irizpiderik ezarrita ez irudirako, ez barne harremanetarako, ezta kontrataziorako ere. Bere egunean Euskara Batzordeak errotulu txiki batzuk aldatu zituenean, horren beharra ikusi zuen eta aurkeztu ere aurkeztu zituen zuzendaritzan baina bere horretan geratu zen.

Beraz, euskal hiztun batzuk beraien erabakiz lan harremanak euskaraz izateko jarrera hartu zuten eta beraien kabuz bideratzen zuten, ahal zen neurrian.

5.- ENPRESEN HELBURUAK

Hemendik aurrera, enpresa bakoitzean zegoen egoera kontuan izanda helburuak markatzen hasi ginen, hiru urterako. Aipatu beharrekoa iruditzen zait, enpresa bietan hasiera batean behintzat, helburuak barrura begira bakarrik markatzea erabaki zela. Garrantzitsuagoa iruditzen zitzaien barruko harremanetatik hastea eta aldaketa barruan ematea, horrek denborarekin kanporako saltua berez ekarriko zuelakoan.

Helburuak lehen aipatutako sei esparru horietarako markatu ziren, irudia, ahozko harremanak, idatzizko harremanak, aplikazio informatikoak, jarrera eta sentsibilizazioa eta hizkuntza irizpideak.

Noski, bi enpresetan helburu orokor bat zegoen “ euskararen erabilera gehitzea”, helburu matrizea hau dela esan dezakegu. Hau ordea sei esparru

desberdinetara xehatu beharra zegoen eta esparru bakoitzak aldi berean helburu espezifikoagoak ere bazituen ordea.

Honelako koadro batean sartzen joan ginen helburu guztiak, ahozko erabilera hartu dut adibide bezala.

| <u>HELBURU OROKORRA</u> | | |
|---|-------------|------------------------|
| AHOZKO ETA TELEFONO BIDEZKO HARREMANETAN EUSKARAREN ERABILERA HANDITZEA | | |
| HELBURU ZEHATZA | EPEA | INPLIKATUTAKOAK |
| Telefonozko harremanetan erabilera gehitzea | | |
| Erdizka dakitenekin euskara erabiltzen hastea | | |
| Euskal hiztunen arteko erabilera gehitzea eta hiztegia aberastea | | |
| Megafonia bidezko mezuak euskara hutsean euskal hiztunentzat eta ele bietara erdal hiztunentzat | | |

Helburuak noski, desberdinak ziren enpresa batetik bestera, gainerik bada ere arlo bakoitzean zeuden aldeak aipatuko ditut.

1.- IRUDIAN

Enpresa bakoitzeko egoera kontuan izanda, A enpresan helburua sail desberdinetako karpetak, biltegiko armairutxoetako identifikazioak, horma irudiak euskara hutsean jartzea zen hasierako helburua. B enpresan, ordea, ele bitasunera jotzea zen lehenengo urratsa.

2.- AHOZKO ERABILERARI DAGOKIONEZ

A enpresan, eguneroko harreman formal eta informalez gain, telefonozko harremanak, bilera guztiak helburu ziren baita ahozko erabileran terminologia euskaraz erabiltzea ere. Tailerrekoen kasuan azken hau zen ahozkoan zuten helburu bakarra, erabiltzen zen hizkuntza nagusia euskara zelako nagusiki.-

B enpresan berriz,

- Euskal hiztunen eguneroko ahozko erabileran eragitea.
- Erdizka zekitenak eta euskaldun berriak identifikatzea eta euskaraz erabiltzea, harreman informaletatik abiatuta.
- Megafonian eta telefono bidezko harremanetan euskara erabiltzea.
- Enpresako terminologiaren euskaraz erabiltzeko behar handirik ez zen aurreikusten, horren aurreko lanak bazeuden.

3.- IDATZIAN

Bi enpresetan ohar tauletako idatziak, langile guztiei heltzen zitzaizkienak, ISOko formatuak aldatzea helburu ziren, A enpresan euskaraz bakarrik jarriz salbuespenak salbuespen eta B enpresan ele bietara. A enpresaren kasuan ISOko inprimakiak betetzerakoan euskara erabiltzea aurreikusten zen, bigarrenaren kasuan berriz, euskaraz bakarrik funtzionatzeko zirkuituak aurkitzea nahiko zaila zen.

4.- APLIKAZIO INFORMATIKOAK

Esparru honetan helburu gehiegirik ez genuen jarri, guk geuk gehiegi ere ez genuelako ezagutzen eta bestetik enpresari berari ere zaila gertatzen zitzaiolako hasierako fase batean honen inguruan erabakiak hartzea. Horregatik, helburu moduan euskara sartzeko aukerak aztertzea jarri genuen edo enpresan bertan sortutako aplikazioetan eragitea.

B enpresaren kasuan intraneta ere helburu moduan jarri genuen, enpresak buruan zerabilkien proiektua zelako, enpresa osorako erabilera emango zion tresna bilakatzeko asmoa zuen gainera.

5.- JARRERA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Helburuak honako hauek ziren:

- Plangintzaren inguruko informazioa ematea, bai enpresan ematen ari ziren aurrerapausoak, baita beste lantegi batzuetan egiten ari zirenak e.a.

- Talde dinamikaren inguruan hausnartzea eta erabilera taldeak tresna eraginkorrak izatea.

- Plangintzan parte hartzen ez dutenak ahal den neurrian erakartzea.

6.- HIZKUNTZA IRIZPIDEEKIKO HELBURUAK

- Errotulazio eta irudirako irizpideak hartzea.

- Barruko inprimaki eta dokumentu berrietarako irizpideak hartzea.

- Langileen formazioan euskaraz ikasteko aukera aztertzea.

- Kontratazioan euskarari buruzko irizpideak hartzea.

- Informatika arloan, programa berriak egiterakoan edo erosterakoan euskara kontuan hartzea.

Enpresa bakoitzaren abiapuntua zein zen kontuan izanda, irizpideak ere zeharo desberdinak izango zirela aurreikusten zen.

6.- PLANGINTZA MARTXAN JARTZEA

Diagnostikoa egin, helburuak finkatu eta ekintzak zehaztu ondoren, diseinu txostena deitzen duguna eginda geratu zen. Hurrengo urratsa bi enpresa horietan plangintza martxan jartzea zen. Ez dut aipatu orain arte baina behin diseinua egindakoan Zuzendaritza Batzordean, Kontseilu Errektorean eta Kontseilu Sozialean aurkeztu zen, kanpoko enpresako aholkularitzarekin egindako txostenari adostasuna adierazteko eta kasuren batean moldaketaren batzuk egiteko. Aldez aurretik A enpresaren kasuan

koordinatzailearekin eta B enpresan koordinatzailea buru zela, Euskara Batzordean, helburu guztiak banan-banan aztertu ziren eta hemen ere bakarren bat gauzatzeko gehiegizkoa edo lekuz kanpo ikusten baldin bazen kendu egiten zen. Uztaileko batzar orokorretan honen berri eman zen, behin betiko onarpena izateko plangintzak. Plangintzarekin hasteko, berriz ere langile guztiek banan-banan betetako inkestetara jo genuen, bertan plangintza aurrera ateratzeko erabilera taldeetan sartzeko prest egongo ote liritekeen galdetzen zitzairen eta baietza eman zutenekin hasi ginen irailean. Erabilera taldeak osatu genituen.

6.1. – ERABILERA TALDEAK.

Zer dira erabilera taldeak? Guk horrela deitzen diegu baina beste modu batera ere deitzen zaie, komunikazio zirkuluak esaterako. Orain orokorrean hitz egingo dut eta ondoren enpresa bakoitzean izan duten bilakaeraz. Erabilera taldeak 8 - 10 euskal hiztunez osatutako taldeak ziren, hamabostean behin edo hilean behin elkartzen ziren. Maiztasuna desberdina zen eginkizunak ere desberdinak zirelako, bulegoan lanean ari zen batek helburuetako askoz esparru gehiago ukitzen zituelako tailerrean dabilenarekin alderatuz. Erabilera bultzatzeko talde eragileak dira, lanerako esparru beretsuan ari den langile multzoa. Enpresan ezarritako helburuak bere gain hartzen ditu taldeak, bere sailari edo inguruari dagokion azterketa egiten du eta ondoren konpromisoak hartzen ditu eta horrekin batera proposamenak aurrera eramateko oinarrizko trebakuntza ere ematen da kasu batzuetan.

Adibide bat jarriko dut, jo dezagun erabilera talde batek lehenengo helburu bezala ahozko erabileran aldaketak ematea jartzen duela. Adibide hau jartzen dut bi enpresen kasuan egindako lan bat delako. Lehenik eta behin taula baten bitartez, ehunekoetan taldeko desberdinekin edo enpresa osoko kideekin, erabilera zenbatekoa zen esatea eskatu zitzaaien adibidez, Jo dezagun taula hau Anek betetzen duela eta datu hauek jartzen dituela.


| | |
|--------|------|
| Miren | % 50 |
| Alaitz | % 20 |
| Patxi | % 80 |

Ondoren epe batzuk jartzen ziren eta bakoitzak esaten zuen nik hemendik hiru hilabetera “ % 70ean euskaraz hitz egitea iritsiko naiz halakorekin “. Epe hori pasatakoan ebaluaketa bat egiten zen, hartutako konpromisoa bete zen ala ez aztertzeko. Ahozko konpromisoen kasuan An, enpresa osoari begira hartu zituzten konpromisoak, kasu batzuetan hartu beharrik ere ez zegoelako. Bn ordea, mailakatuz hartu ziren, lehenik eta behin erabilera taldekoen arteko konpromisoak izan ziren, ondoren departamentura eta negoziara zabaldu ziren eta azkenik enpresa osora.

Eta ahozko erabilerarekin egin zen bezala ondoren irudian aldaketak emateko, idatzirako e.a. egin zen.

Gaur egun jendeak badaki zertan ari den eta zertarako, baina hasiera batean behintzat, konturatzea eta jabetzea ez zen erraza izan.

Hala ere erabilera taldeek hainbat gairen inguruan ezin zituzten bat batean erabakiak hartu, batzuetan prozesu luze samarra ere bilakatzen zen eta da.



Erabilera taldeak proposatu egiten zuen, egingarria bazen aurrera, bestela zuzenean euskara batzordeak organo horietako ordezkarien bitartez Zuzendaritzara edo Kontseilu Errektorera bideratzen zuen.

Gauzak horrela esanda, ematen du aldaketak bilera batetik bestera eman behar direla, baina urratsak ez dira handiak izaten, ezta epe motzera ere, hizkuntza aldaketa bat ematea ez da egun batetik bestera egiten den gauza. Bilera bat egin, konpromisoak hartu, ez bete, berriz ere gaiari buelta batzuk eman, lanak egiteko geratu, ez egin, behin eta berriro errepikatu diren ekintzak dira. Honek esan nahi du, prozesua lineala izateko aukera gehiegirik ez dagoela.

Erabilera taldeak aurrera ateratzeaz arduratuko dena euskara teknikaria izango da, gaiak landuta eramaten ditu, materiala prestatu, ekintzak egiteko bideak erraztu, sustatzaile lanak egin eta abar. Batez ere sustatzaile lan hau izaten da behin eta berriz egin behar izaten dena, gogoratu, xaxatu. Hasiera

batean berak izaten du ekimenaren parterik handiena baina pixkanaka erabilera taldeko kideek hartuko dute lekukoa.

A enpresaren kasuan errazagoa izan da lekuko hori hartzea, askoz lan gehiago hartu dituzte bere gain, sustatzaile beraiek ere bihurtu dira, elkarren arteko laguntza ere bultzatzen dute. Bren kasuan oraindik hiru urteren buruan teknikariak du pisurik handiena. Bere esku egoten jarraitzen du proposamenak egitea, zirikatzaile lana eta gainerako guztiak.

Kostatzen da benetan eginkizunak beraiek hartzea eta aurrera ateratzea, horregatik euskara teknikariak bere gain hartzen ditu eta berak lantzen du ahalik eta eperik laburrenean aurrera ateratzeko.

6.2.- ERABILERA TALDEEN OSAKETA.

Esan dugun bezala erabilera taldeak 8 - 10 lagunez osatutako talde eragileak dira.

A enpresan oso ondo bereiztu ziren tailerra eta bulegoa eta horren arabera antolatu ziren. Bulegoan ordea, eguneroko lan eginkizunak zirela eta departamendu desberdinetako kideak elkartu ziren talde berean, hamabostean behin elkarrekin ordubeteko bileraz eginez.

B enpresan berriz, tailerra eta bulegoak ez ziren bereiztu eta talde nahasiak osatu ziren hiruzpalau tokitan, beraz, hasieratik eginkizun desberdinak zituzten bi mundu elkarrekin abiatu ziren.

Bai batean eta bai bestean, enpresaren erabakiz hasi ziren antolaketa modu honekin.

6.3.-ERABILERA TALDEEN DINAMIKA (HIRU URTEKO EPEAN).

Orain enpresa bakoitzean hiru urte hauetan erabilera taldeek izan duten bilakaera aztertuko dut.

A ENPRESA

Enpresa honetan tailerreko erabilera taldeak eta bulegoetako erabilera taldeak bereizi behar dira hasteko. Bai tailerrean bai bulegoan euskal hiztunen kopurua handia da baina euskal hiztun alfabetatuak eta ikasketa guztiak euskaraz egin dituztenak tailerrean daude. Bulegoan ordea, euskal hiztunak bai baina asko eta asko euskaraz sekula idatzi gabekoak eta ahalegintxo hori egiteari beldurra ziotenak. Tailerreko erabilera taldeetan biltegiko armairuetan, karpitetako eta apaletako identifikazioak nahiz egiten dituzten idatziak euskaraz egiten hastea ez zen gehiegi kostatu. Agian, talde hauekin ikusten zena zera zen, eginkizunak berehala amaitzea eta horixe gertatu zen urtebeteko epea amaitu ondoren.

Hala ere, erabilera talde hauek faktore garrantzitsuak izan dira planaren bilakaeran, eginkizunak amaitu ahala, berri batzuk zehazten zituzten. Beraien lanak izan dira terminologia biltzea, euskaratzea neurri batean, hitzak adostea (hau taldetxo batek egiten zuen) eta azkeneko urratsa terminologia hori jakitera eman eta erabiltzera iritsi.

Terminologiarekin aritzeaz gain motibazio lanak, bertsoak, komikiak, irudiak eta zerrendak atera eta banatu, lehiaketak antolatzea beraien lana izan dira. Horrekin batera jarraipen taldetxo bat ere osatu zen, euskararen inguruan betetzen ez zirenak bete zitezten. Amaiera aldera talde hauetan jaitsiera bat egon bada ere, prozesuaren moteltze bat, baina honekin batera esan, orokorrean eginkizun faltarik sekula ez dutela izan.

Beste alde batetik bulegoetako erabilera taldeak egon dira. Kasurik gehienetan departamendu desberdinetako langilez osatutako erabilera taldeak. Prozesuaren hasieran ahozkoaren inguruko konpromisoak, irudian aldaketak ematea, txantiloireduak euskaratzea eta zuzentzea, guztiek batera egiteko moduko gauzak zirenez, hala egin zuten. Baina pixkanaka erabilera zirkuituak murriztuz joan dira eta hirugarren urtean berrantolaketa bat egon da bulegoko talde handiak talde txikiagotan banatu dira eta dokumentu konkretu batzuk lau pertsonak betetzen badituzte lau horiek elkartu eta beraiek aurrera atera dituzte lanak. Bi urte horiek bete arte lanak atera zituzten baina tope egitera iritsi ziren eta antolaketa berria martxan jarri zen. Talde hauetan ere gauza asko aurrera atera dira, askoz lan zehatzagoetan zentratu dira.

Hala ere, tailerreko erabilera taldeen iritziz, bulegoetakoek askoz gauza gehiago egin behar zituzten baina ez dituzte egin. Hor sortzen da beraien arteko ez nuke gatazka esango, baina bai bulegoek egindako lana eta aurrerapausoa ez bateratzea eta ikustea. Honen arrazoia izan liteke batzuen eta besteen artean betidanik egin den desberdintasuna, nahiz eta kooperatiba batetaz hitz egiten aritu.

Erabilera taldeak hor zeuden arren, horrek ez du esan nahi, dena horren bidez lortu denik, bakarkako lan asko egin behar izan baita, sustatzaile lana lehen ere aipatu dudana bezala.

Hiru urteren buruan erabilera taldeek egin duten lana oso garrantzitsua izan da, hartutako konpromisoak neurri handi batean bete egin dira nahiz eta betetze mailaz hitz egiterakoan guztiek ez duten kalifikazio bera ematen.

B ENPRESA

Bigarren enpresaren kasuan aurreko enpresan bezala orain dela hiru urte hasi ziren, hiru negozio desberdin ziren eta bakoitzak zeuzkan bere erabilera taldeak. Aldi berean, hiru negozio horientzat zerbitzu orokor batzuk zeuden. Hasieratik garbi zegoen negozioka behintzat antolatu behar zirela erabilera taldeak eta zerbitzu orokorrak beste alde batetik.

Zerbitzu orokorren kasuan, informatika arloa, pertsonal saila eta finantzak elkartzen ziren eta sail horietako euskal hiltunekin erabilera talde bat osatu zen.

Negozio bakoitzera pasaz hasierako asmoa bulegoetako langileak alde batetik hartzea zen eta bestetik tailerrekoak, bi negozioetan ordea, ez zen onartu horrela izatea eta bereizketa hori egiteko hainbat saiakera egin ondoren, nahasketa horrekin hasiera eman zioten erabilera taldeek. Bulegoko erabilera taldean tailerreko bizpahiru langile sartu zituzten baina horrez gain tailerrean geratzen ziren kideekin beste erabilera talde batzuk ere osatu ziren. Beraz

talde mistoak bazeuden baina aldi berean baita tailerreko kidez bakarrik osatutako taldeak ere.

Hasiera guztiek aztoramendua sortzen dute eta ez da jakiten askotan benetako bidea zein izan daitekeen, horri gehitzen badiogu hasieratik taldeetan zegoen nahaste borraratea, erabilera taldeek hasiera oso ona ez zutela izan erraz asko antzeman genezake. Ahozko konpromisoak hartzean beraien artean harreman gehiegirik ez zuten kideak zeuden, terminologia aldetik gauza desberdinak erabiltzen zituzten, idatzian sartzean erabilera zirkuituak osatzea benetan zaila zen.

Hala ere urtebete bat egin genuen, orduan aldaketaxoren bat sartu genuen, talde batean zeudenak bestean sartu eta aurrera ekin genion berriz ere. Erabilera taldeetan pixkanaka-pixkanaka asistentzia jaisten joan zen eta geratzen zirenak, konpromisoak betetzerakoan zegoen seriotasun falta azpimarratzen zuten. Egoera honek irtenbide bat behar zuen noski.

Euskara Batzordeak egoeraren hausnarketa bat egin zuen eta funtzionatzeko moduan aldaketak sartzea erabaki zuten. Irtenbidea erabilera taldeak departamenduka antolatzea izan zen.

Departamendu osoak hartu eta erabilera talde berriak antolatu ziren. Departamendu horretako kide guztiekin bilerak egin ziren, euskal hiztunak eta erdal hiztunak, orain arte esan ez badut ere, hasierako fasean erabilera taldeetan euskal hiztunak bakarrik hartzen genituen.

Proposamen hau Zuzendaritza aurkeztu zen eta Euskara Batzordearen asmoa hiru negozioetan martxan jartzea bazen ere, proba moduan bakar batean martxan jartzea onartu zen.

Dinamika txarrena zerañan negozioan martxan jartzea erabaki zen. Bulegoetako lau departamendu desberdinak hartu genituen banan-banan, ahoz departamentu horietako kide bakoitzari azalpenak eman zitzaizkion egoeraren berri emateko eta iritzia eskatzeko. Orokorrean erantzuna baikorra jaso zen, behintzat lehenengo bilera bat egiteari baietza guztiek emango zioten, hortik aurrera bakoitzaren partehartze definitu zen.

Departamendu bilera hauek hasiera batean beraien departamendu bileretan txertatu nahi izan ziren baina aukerarik ez genuen izan.

Lehenengo bilera horretan, departamendu osoa erabilera talde bihurtzeko aukeraz hitz egin genuen eta horren aurrean bakoitzak erabaki zuen bere partehartzea zenbaterainokoa izango zen eta zer egiteko prest zegoen eta talde osoaren aurrean noski.

Departamendu bakoitzean helburuak aurrera atera nahi zituen jendea aurkitu genuen, egiten zenaren inguruan informazioa jaso nahi zutenak bestetik eta horrela adostu genuen talde finko bat hamabostean behin elkartzea eta departamenduko gainontzeko kideekin hiru hiletik behin elkartzea besterik ez bazen egindakoaz jabetzeko eta hurrengo hiru hilabeteko urratsak ematen laguntzeko ere bai.

Hala ere, prozesu honetan guztian aldaketarik garrantzitsuena erdal hitzunik erabilera taldeetan sartzea izan da, beraien ekarpenak egiten dituzte, kasu batzuetan gaztelaniaz hitz egin behar izaten da erabilera taldeetan baina emaitzetan ere igartzen da.

Eta hau izan da negozio baten bilakaera oraintxera arte.

Esan bezala ,azken prozesu hau negozio bakar batean eta aurreraxeago zerbitzu orokorretan jarri dugu eta emaitza onak eman dituela esango nuke, batetik askoz jende gehiagorengana iristen gara, onarpen zabal batekin hartzen dira erabakiak eta erdal hiztunek ere parte hartzen dute.

Beste bi negozioetan hasierako dinamika berarekin jarraitu dugu eta emaitzak oso desberdinak izan dira, batean nahasketa horrekin egon arren gauza dezente lortu dira. Zergatiak?

-Euskal hiztunen kopurua handia da,

-Aldaketa dezente eman dira, tokiz aldatu direlako eta horrek egiteko aukera eman duelako.

-Proiektu berri dezentetan sartu dira eta horrek beti ematen du gauzak egiteko aukera.

-Jendearen aldetik ere prestutasun handia egon da gauzak egiteko.

Hala ere, bilakaera gorabeheratsua izan arren erabilera taldeek egindako lana garrantzitsua iruditzen zait eta batez ere fase honen amaiera aldean egindakoak. Batzuetan pentsatu izan dut horren arrazoiak eta taldearen antolaketa bera baino gehiago, izan daiteke hasieran gauzak oso garbi ez ikustea eta amaiera aldean konturatzea prozesuaren nondik norakoaz. Konpromisoen betetze maila askoz handiagoa izan da fase honen amaieran.

6.4. - EUSKALDUNTZE ALFABETATZE IKASTAROAK.

Erabilera plangintzan helburuak lortzeko, euskara eskolak ere ezinbesteko baldintza dira, batez ere erdal hiztunen kopurua handia den tokietan.

A enpresaren kasuan erabilera taldeak martxan jartzearekin batera, euskalduntze ikastaroak ere martxan jarri ziren, B enpresako langileekin batera. Euskara eskoletara joan zirenak motibatuta hasi ziren, %94a euskal hiztuna den enpresa batean lanean ari zirela kontuan hartuta, euskara ikastea beharrezkotzat jotzen zuten. Hala ere, beti geratzen da bat edo beste eta kasu honetan ere hala izan zen, bizpahiru lagun ez ziren eskoletara joan.

Eskolen multzoan alfabetatze ikastaroak aipatu nahi ditut, enpresa honetan garrantzi handia izan dutelako. Plangintzarekin martxan hasitakoan, batzuk laster esan zuten euskaraz idazten eta irakurtzen ohitu gabeko langileentzat, alfabetatze ikastaroak antolatu behar zirela.

Lehenengo urtean ez zen ezer antolatu baina bigarren urtean bai. Enpresa mailan deialdia egin zen eta berrogeita hamar bat lagunek izena eman zuten, bakoitzaren beharrei egokitutako alfabetatze moduluak antolatu ziren, 40 bat orduko moduluak. Batzuk laneko idatzi ereduak landu zituzten, beste batzuk oinarrizko alfabetatzeetik abiatu ziren eta alfabetatuta egon arren hizkuntza gehiago sakondu zutenak ere egon ziren. Langile batzuen iritziz ikastaro hauekin bete betean asmatu zen, beste batzuentzat ez ordea, laburregiak izan zirela aipatu zuten. Hurrengo urtean ere jarraipena izan zuten ikastaro hauek baina jende gutxiagok eman zuen izena.

B enpresaren kasuan, euskara eskolak euskara plangintza hasi baino urtebete lehenago hasiak zeuden, hogeit hamar bat lagun ari ziren eta lehenengo urtebetearen balorazioa oso positiboa izan zen. Plangintzarekin hasitakoan, inkestetan eskoletarako joateko asmoa adierazi zuten guztiengana banan-banan joan ginen, deialdi zabal bat egin zen eta jende askok eman zuen izena

euskara eskoletarako, berrogeita hamar inguru izango ziren, maila desberdinetan antolatuta.

Maila desberdinak egin ziren, banaketa egin eta ikasturteari hasiera eman zitzaion, baina ikasturtea hasi eta hilabete pare batera asistentzia jaitsiera etorri zen. Jaitsiera hori, enpresan beste formazio ikastaro batzuk sartzearekin batera etorri zen baina nik esango nuke. arrazoi bakarra ez zela hori izan, izena eman zuten gehienek, ez zekiten zortzi ordu lan egin ondoren beste ordu pare bat euskara ikasteari eskaintzea zer zen, nahiz eta alde zurririk horren berri eman.

Euskara eskolek jarraipena izan dute hiru urte hauetan baina erdibidean ere geratu da jendea, gaur egun hamabost lagun ari dira euskara ikasten, hauetako batzuk laugarren urtea bete dute eta prozesua eteteko inolako asmorik ez daukate. Plangintzarekin aurrera egin ahala erabilera taldeetan ere sartu dira hautako partaide batzuk.

Euskalduntzeko alfabetatzeko ahalegin hau, erabilera gehitzeko asmoaren barruan kokatu behar dira. Alfabetatzearen kasuan, erabilera taldeetan kasu batzuetan oinarrizko trebakuntza bat ematen da baina oso nozio basikoak edo oso motz gertatzen da denbora hori. Euskalduntze alfabetatze arloan zenbat eta urrats handiagoak eman, orduan eta errazago izango da plangintzaren barruan ezarritako helburuak betetzea. Kontua da behintzat bi prozesuek parean joan behar dutela, ezin dira ekintza isolatu moduan hartu eskolok, horregatik ezinbestekoa da euskara teknikariaren eta irakasleen artean harreman estuak izatea. Teknikaria eta irakasleak elkarrekin eta

ikasleekin batera, ikastaroaren helburuak finkatzeko eta egon daitezkeen arazoei irtenbidea aurkitzeko.

Horrela lehenengo urratsa irakasleei enpresan antolatutako plangintzaren berri ematea da, eta eginkizun hori teknikariaren esku egon behar du. Hortik aurrera plangintzaren baitan ematen diren urratsen nondik norakoak, behin maila batetik aurrera, ikasle horiek eguneroko lanean erabiltzen duten hiztegia edo dokumentazioa, ere erakutsi beharko zaie irakasleei.

Nire ustez lan mundura egokitutako euskara eskolak izan behar dute, ez besterik gabe, programazio bat hartu eta hura jarraitzea, enpresa mundura egokitu behar dira. Eta eskolak aprobetxatu, lanean egunero erabiltzen dituzten erremintak euskaraz erabiltzen hasteko. Enpresa honetan eskoletan izena eman duten pertsonen tipologia zein den kontuan izanda, komunikazioak garrantzi handia izan du eta antolatu diren ikastaroetan ahozko erabilerak izan du lehentasuna beste trebetasun batzuen gainetik.

Helburuen artean euskal hiztunak, euskara ikasten ari direnekin euskaraz egiten hastea zegoen. Kasu batzuetan bete da baina oso gutxitan, eguneroko lanak pisu handia dauka eta ikasten ari direnen aldetik ahalegina egin dutenak eta euskal hiztunen aldetik, pazientzia hartu dutenak gutxi izan dira.

A enpresan euskara eskoletan izena eman dutenak hiru urteko prozesuan zehar jarraitu egin dute ez dute utzi, jarraipen bat eman diote, beharra ere handiagoa ikusten zutelako izan daiteke. B enpresan ordea, behar hori ez da hainbestearainokoa, erraz asko molda daitezke gaztelaniaz oraindik

ere eta talde batek hasiera hasieratik jarraitu arren, izena eman eta utzi dutenen kopurua handiagoa izan da.

Aurrera begira enpresa honetan berebiziko garrantzia izango dute, batezbestekoaren adina hogeita hamabost urtekoa dela kontuan izan da. Baina nola bultzatu jendea euskara ikastera, nola motibatu? Hauxe da benetan zaila, hizkuntza bat ikasteak, esfortzua suposatzen du eta urrats hori ematera bultzatzea da zailena.

6.5- EUSKARA BATZORDEA

A enpresan plangintza martxan jarri zenean, oraindik ez zegoen eratuta euskara batzorderik. B enpresan ordea, plangintza martxan jarri aurretik ere bazegoen eta hainbat lantxo eta ekimen ere aurrera atera zituen.

Osaketaz hitz egiterakoan, batera hitz egingo dut egitura beretsua zutelako, hauek ziren partaideak:

- Euskara Planeko koordinatzailea
- Zuzendaritza Batzordeko ordezkaria
- Kontseilu Errektoreko ordezkaria
- Kontseilu Sozialeko ordezkaria
- Beste lau kide
- Euskara teknikaria

Organoetako ordezkariak, organo bakoitzean aukeratu ziren eta gaur egun ere aldaketaren bat egon denean, halaxe aukeratu dira. Gainontzeko beste lau kideengana teknikaria nahiz koordinatzailea inguratu dira, proposamena luzatuz eta eginkizunak zehaztuz eta kide horrek prestutasuna

adierazi, lan egiteko gogoa eta proiektua bere gain hartzeko modukoa ikusiz gero batzorde honetako partaide bihurtzen da.

A enpresako euskara batzordeak urte eta erdiko ibilbidea egin zuenean eta erabilera talde kopurua handia zenez, hamahiru hain zuzen ere, eta guztien proposamenei behar bezala erantzunik ematerik ez zutenez, berrantolaketa bat eman zitzaion euskara batzordeari, erabilera talde bakoitzak ordezkari bat aukeratu zuen.

Koordinatzailea, teknikaria, organoetako ordezkariak eta gainontzeko kide horien artean euskara batzordeko lau ordezkariak aukeratu zituzten. Hemendik aurrera bi euskara batzorde daude, batetik hilean behin elkartzen den euskara batzordea eta bestetik erabilera talde guztietako ordezkariak elkartzen den euskara batzordea. Azken honen funtzioak erabilera taldeetako dinamikaren berri eman eta proposamenak luzatzea da. Beste euskara batzordearen funtzioak beranduxeago zehaztuko ditut.

B enpresaren kasuan, lehen esan dudana bezala hiru urteko plangintza honekin hasi aurretik bazegoen eta euskara eskolak martxan jartzea, plangintza hau bultzatzea eta errotulu txiki batzuk euskaratzea bere lanak izan ziren. Ez ziren maiztasun jakin batekin elkartzen, noizbehinka gairen bat jorratzeko zutenean. Plangintzarekin hasitakoan, dinamika pixka bat jartzea erabaki zen, hilean behin elkartzeko erabakia hartu zen eta plangintzaren jarraipena egiteko beharra ere ikusten zen lehen baino gehiago, azken finean fronte asko zeuden irekita une horretan.

Ordura arte baino lan gehiago eskatzen zuela ikusitakoan partaide batzuk irten egin ziren eta tarte horretan kide berriak sartzen joan dira. Azken

urtebeterarte euskara batzordea ez da egonkortu. Orain partaide batzuk eginkizun zehatzak hartu dituzte eta batzordeari, hau azken egunotako erabakia izan da, enpresaren aldetik euskararen inguruko jarraipena egiteko lana eman zaio. Urteetako lana izan da beraz, ez egun batetik bestera lortu den kontua eta emaitzak ematen haste hori, euskara batzordeak urteko gestio plana egitearekin etorri da. Une honetan haratago joan nahi du eta euskara batzordearen gestio plan hori enpresakoan txertatzea da helburua.

Eta zeintzuk dira azken finean euskara batzordearen eginkizunak:

- Euskara Batzordera proposamenak eraman.
- Antolatzen diren ekintza guztiak koordinatu.
- Erabilera taldeetan jasotzen diren proiektuak ontzat eman eta beharrik ikusiz gero enpresako organoetan aurkeztu, horretarako batzorde horietako partaideez baliatuko dira.
- Plangintzan aurrerapausoak eman daitezen, ekintza edo helburu jakin batzuk ezarri beharrekotzat jotzen badute. Proposamenak luzatu teknikariari.
- Plangintza kontrolatu, hartutako erabakiak kontuan hartuz , gauzak betetzen ez direla ikusiz gero, betetzen ez duenarengana joan eta betetze horren arrazoiak galdetu eta konponbidea bilatuko da.
- Ebaluazioa egin; horretarako datuak jaso, kontrastatu, atzera pausoen arrazoiak aurkitu eta abar.
- Motibazio lana ere bere gain hartu behar du.

Garbi dago Euskara Batzordeak ez duela independenteki funtzionatu behar.

A enpresaren kasuan, hasieratik lortu da euskara batzordean organo desberdinetako kideen bitartez, harreman estua izatea Zuzendaritzarekin eta Kontseilu Errektorearekin, behar diren deskarguak egin dira, euskara batzordetik proposatutako gaiak landu egin dira eta beraiek ere proposamenak egin dituzte. Dinamika polita sortu da.

Bn berriz, Zuzendaritza Batzordera proposamenak luzatuz hasi ginen baina gaia ez zen gehiegi kontuan hartzen, nahiz eta zuzendaritzako ordezkari bat bertan egon. Euskara Batzordeak gaiari behin eta berriz bueltak eman dizkio eta une honetan maiztasun batekin Zuzendaritza Orokorrean eta gerentzian bilerak egiten dira, gutxieneko harreman bat lortu da, hala ere, Kontseilu Errektorea eta Kontseilu soziala batere landu ez ditugun organoak dira. Epe laburrean heldu beharreko gaiak dira.

6.6.- LANEKO ZUZENKETAK ETA ITZULPENAK

Euskara plangintzarekin hastean teknikariaren lanetako bat lana euskaraz egitean langileei sor dakizkiekeen zalantzak argitzea da. Zalantzak argitu bakarrik ez, egindakoa berak zuzentzen du eta aldi berean akatsak komentatu ere bai. Euskaraz sortutako lanaren gainean zuzenketa eta trebakuntza lan bat egiten da. Kontsulta hauek lanarekin harreman zuzena izaten dute eta ahozkoan nahiz idatzizkoan sortutako zalantzak argitzeko balio izaten dute. Laneko zuzenketaz gain itzulpenak ere ugaritu egiten ziren prozesuaren hasieran. Hauek euskara ez zekiten langileak bakarrik ez, euskaraz hitz egin arren idazterakoan zailtasunak zituztenak ere eramaten

zituzten. Baldintza batzuk jarri ziren, bi orri baino luzera txikiagokoak egiten ziren enpresan.

A enpresan, prozesua hastearekin batera lanpostuko laguntzak eta itzulpenak gehitzen hasi ziren, langileek edozein zalantzaren aurrean teknikariarengana jotzen zuten. Hasiera hasieratik zabalkunde handiko dokumentuekin ereduak sortzen hasi ziren, horrela hurrengo batean halako idatziren bat behar izanez gero ereduak datuak aldatu besterik ez zuten egiten. Ez dugu ahaztu behar, gauza batzuk urte batetik bestera errepikatu egiten direla. Euskararen erabilerara errazteko bitartekoak ere berehala martxan jarri ziren, hiztegia sartu zen sarean, enpresan bildutako hitz teknikoak jaso, euskaratu eta sarean jarri dira, euskarazko zuzentzailea erabiltzeko laguntza eskaini zen, banan-banan enpresako langile guztiei azalpenak emanez. Beraz, jendea bitarteko hauetara ohitu egin zen azkar asko. Hasiera bateko zalantzak, kontsultak egin gabe egiten zituzten baina behin dinamika bat hartutakoan langile bakoitzak pertsonalki egiten zituen kontsultak eta ondoren teknikariarengana jotzen zuten.

B enpresan hasieran euskaraz idazten zuen langilerik ez zegoen. Oso arraroa zen ohar tauletan idatzi bat euskaraz ikustea, beraz, hizkuntza aldetik zalantzarik ez zegoen.

Kosta egin zen dinamika horretan sartzea, horren aurretik lan asko zeuden, besteak beste euskara erabiltzeko ahalegina egitea, hasiera batean euskal hiztunen artean. Horrekin batera langile guztiei begira idatziak sortu behar zuten langileengana jo genuen, euskaraz ere sortzeko. Hasieratik ezin genuen euskaraz eta gaztelaniaz egiteko esan, horregatik lan hori teknikariak

egiteko aukera eskaintzen zitzaien. Hurrengo egunean sortu beharreko dokumentua beharbada teknikariari emango zioten euskaratzeko, baina astebete beranduago sortu beharrekoa ez . Langileen atzetik behin eta berriz joan behar izan da , askotan . Plangintzak aurrera egin ahala jendea konturatu egin da eta itzulpenak bakarrik ez, laneko zuzenketak, egitera ere ohitu egin dira, euskararen inguruan telefonoaren bidez egiten diren kontsultak e.a. Gaur egun euskaraz sortzera ere iritsi dira hainbat langile eta hizkuntza menperatzen ez dutenak eta erdal hiztunak askotan jotzen dute teknikariarengana itzulpenekin.

Oraingoz lortu ez dena zera da, langile bakoitzak bere eredutxoak sortzea , itzulitako testu horiekin, beraien kabuz egin beharreko lan hori oraindik ez da egiten hasi.

6.7.- PLANGINTZAN PARTEHARTZE ZUZENA EZ DUTENAK

Bi enpresa hauetan erabilera plangintza martxan jarri zenean, erabilera taldeak abian jarri ziren, hasieran esan dugun bezala.

A enpresan, euskal hiztun kopurua hain handia izanda, ehuneko laurogeia erabilera taldeetan sartu zen, euskara eskoletan beste bospasei lau sartu ziren, beraz, enpresaren zati handi bat murgildu zen erabilera plangintzan eta hain kopuru handia sartuta egonda, ez zen zaila gainontzekoengana iristea, lanean ari zirenak informazio banatzaileak zirelako eta informazio orriak ere prestatu zirelako.

B enpresan ordea, erabilera taldeetan langileen ehuneko berrogeia (210 langiletatik, 80 bat lagun) ere ez zen sartu, eta euskara eskoletan beste hamabost bat lagun sartu ziren. Horrek esan nahi zuen, enpresako gainontzeko jendearengana iristeko bideren bat aurkitu behar zela. Euskara Batzordea berrantolatu ondoren, kezketako bat hau zen. Garbi zegoen plangintza enpresa osorako kontua zela eta eragina langile guztiengan izango zuela.

Bide batzuk bilatzen hasi eta lehenengo erabakia bi hilabetetik behin plangintzaren inguruko informazioa zabaltzea izan zen, aurrerapauso eta nondik norakoen berri emateko. Hori baino gehiago behar zen ordea, aurrez aurreko bileraren bat alegia. Urtean zehar egiten diren hiru batzar orokorren aurretik, negozio bakoitzean batzar informatiboak egiten dira eta gaiari bueltak ematen ari ginela, informazio saio hauek egiteko sasoia zen. Aukera ona izan zitekeela pentsatuz, batez ere iritzi trukaketarako, proposamenarekin aurrera egin genuen eta negozio bakoitzeko batzar informatiboetara joan ginen. Planak zuen bilakaeraren inguruan informazioa banatu zen saio hauetan. Galdera erantzunei ere tarte utzi zitzaion baina ez zuen arrakasta gehiegirik izan, taldeak ere handi samarrak direnez, jendeak ez zuen kezka edo iritzi gehiegirik adierazi.

Aldez aurretik hori gerta zitekeela aurreikusten zenez, galdetegi bat prestatu zen handik egun batzuetara jasotzeko baina honek ere arrakasta gehiegirik ez zuen izan, erantzunen batzuk jaso ziren baina gehienak erabilera taldeetan zebiltzan langileen aldetik.

Saio pare bat egin ziren baina egoerari irtenbideren bat eman beharra ikusten zen.

Euskara Batzordeak gaiari buelta batzuk ematen jarraitu zuen, batzar informatiboetan jende gehiegi elkartzen zen eta talde txikiagotan biltzeko aukeraren bat bilatu beharra zegoen. Hortik sortu zen zelulako bileretara pasatzea, tailerrekoen kasuan eta departamenduko bileretara bulegokoekin.

Tailerrekoek, hilean behin egiten dituzte aipatutako bilerok eta hor joan ginen euskara batzordekoek, informazioa banatzeko asmoarekin eta aldi berean, langileen aldetik ere kezka jasotzeko.

Balorazio positiboagoa egiteko moduan gaude bilera hauetaz, askorengana iritsi ginen, taldeak txikiagoak ziren eta jendearen aldetik ekarpenak jaso ziren. Aurrera begira jarraitzeko bide bat bezala ikusten zen, tartean ordea, beste arazotxo batzuk sortu ziren eta momentuz nahiko geldirik dago kontua baina berriz heltzeko moduko lana izan daiteke.

Horrekin batera departamenduko lana bultzatzea erabaki zen negozio batean, hauxe izan da bakarka lau departamendu osoko langileengana heltzeko bide bakarra, bakoitzak zituen helburuen inguruan hitz egin, bakoitzak plangintzan izan dezakeen partehartzea zehaztu e.a bilera hauetan egin ziren. Departamendu hauetan zeuden erdal hiztunengana eta ordura arte plangintzarekin lotura zuzena izan ez zutengana iritsi ginen.

Bakarkako lan hau ere egin beharrekoa iruditzen zait, zaila da 260 langile gertu dituen enpresa batean guztiengana iristea baina ez litzateke txarra horretarako bideren bat bilatzea, beldur asko uxatzen dira, proposamenak jasotzen dira eta harremanak sendotzeko aukera aparta da.

Orain arte ez dut aipatu baina enpresa azken hiru urteotan hazi egin da eta momentu honetan 50 langile gehiago baldin badaude ere, 300 gertu izatera era iritsi da hiru urteko epe honetan. Eta enpresan sartzen zen langile berriengana iristeko ekintza plana ere zehaztu da. Harrera plana Pertsonal saileko arduradunak egiten duenez, plagintzaren inguruan informazioa emateko orri informatibo bat prestatu zen eta langile berri bat sartzen den bakoitzean orri hori ematen zaio. Ondoren teknikariak izaten du berarekin harreman zuzena eta erabilera taldetan sartzeko nahiz beste aukeraren bat eskaintzen zaio.

Hori dela eta, azken hiru urte hauetan erabilera taldeetako partaide kopurua hazi egin da eta ehun bat lagun izatera iritsi gara hirugarren urtearen amaieran.

Modu batera edo bestera jende askorengana iritsi gara eta honek azken urtean, mugimendu dezente sortu du badirudi jendea oraintxe hasi dela esnatzen, lehenengo bi urteetan lozorroan bezala egon da, gauzak egin eta sortu dira baina esanaren eta gogoratzearen poderioz, ez berezko prozesu bat bezala, kasu batzuetan ez behartuta baina bai gogoz kontra.

Hala ere, neurri batean egoerari buelta ematea lortu den arren, oso kontuan eduki beharko da bai enpresa batean eta bai bestean jendearengana iritsi egin behar dela eta horretan ahalegin berezia egin behar dugula.

Atal honekin amaitzeko, erdal hitzuneekin izandako esperientzia oso aberasgarria izan dela aipatu nahi dut eta aurrera ere bide hau irekita dagoela eta landu egin beharko dela eta horretarako bakarka egindako lana ezinbestekoa dela iruditzen zait. Azken finean euskararentzat pertsonak dira

garrantzitsuak, beraientzat euskara garrantzitsua den pertsonak. Pentsatzeko modu okerra da, erdal hiztunek gauza gutxi egin dezaketela pentsatzea.

Hauek dira hain zuzen ere plangintza martxan jartzean enpresa batean eta bestean martxan jarritako bitartekoetako batzuk. Orain sustatzaile lanetan aritu direnak aipatuko ditut.

6.8.- ALDAKETAREN SUSTATZAILEAK

Lehen ere esan dugu, egoeraren aldaketa bat burutu nahian hasi zirela bi enpresatan eta horretarako kanpoko eragileak eta barruan bertako eragileak aurki ditzakegu eta atal honetan horixe aztertuko dut, bakoitzaren funtzioak, motibazioak eta jarrerak duten garrantzia eta bide batez, aldaketa hori emateko enpresan egon diren erresistentziak edo gatazkak.

6.8.1.-KANPO ERAGILEAK

Kanpo eragileen artean euskara teknikariaren figura daukagu, plangintzaren bideragarritasun eta diseinua berak egin zuen eta inplementazioa ere berak martxan jarri zuen. Teknikariak dituen eginkizunak besteak beste honako hauek dira.

- ◆ Erabilera taldeetako ardura. Saioak prestatu, bideratu eta proposamenak egin. Hasiera batean behintzat kostatu egiten da erabilera taldeetatik ekarpenak jasotzea, beraz berak hartu behar izaten du iniziatiba.
- ◆ Jarritako helburuak lortu daitezkeela kontuan eduki behar da. Ez da helburu bezala programa informatiko bat euskaraz jartzea jarriko, horretarako aukerarik ez baldin badago.
- ◆ Erabilera taldeetan proposatzen diren ekimenak bideratu; batekin eta bestearekin egon proposamenak martxan jartzeko.
- ◆ Jarritako helburuen ebaluaketa egin bai erabilera taldeetan baita euskara batzordean. Beste batzorderen batzuetan, enpresakoetan alegia, egitea komeniko litzateke.
- ◆ Erabilera taldeko partaideen eta enpresako langile guztien jarraipena egitea komeniko litzateke, komeniko esaten dut , guztiengana iristea ere ia ezinezkoa delako.
- ◆ Asistentzia gorabeherak egonez gero arrazoiak aztertu. B enpresan askotan egin behar izan dugu, asistentziaren kontua oso gorabeheratsua izan delako.
- ◆ Lanpostuko laguntzak: langile bakoitzari eguneroko lanean sortzen zaizkion laguntzak eskaintzeko.
- ◆ Itzulpen lanak.
- ◆ Planaren norabideaz proposamenak egitea eta zalantzak argitzea bere lana izan da.
- ◆ Eskoletako irakasleekin eta ikasleekin koordinazioa.
- ◆ Hiru urteko epe horretarako jarritako helburuen jarraipena egitea.

Hauek dira gutxi gora behera euskara teknikariak izan dituen eginkizunak eta hiru urteko epe honetan egin dituenak. Lanik zailena helburuen neurketa bat egitea izan da, enpresak orokorrean zenbakiekin jokatzeko ohitura daude eta beraien gestio planetako helburuak hala neurtzen dituzte. Horretarako tresna egoki baten beharra nabaritu dut, hiru urteko prozesu honen amaieran konpondu da hori nolabait ere. Baina prozesuaren hasieran egin ezenez, aurrera begira izan beharko du baliagarri. Atal honen ondoren egingo dut atalez ataleko balorazio kualitatibo bat.

Hala ere, enpresa batetik bestera teknikariaren eginkizunak edo betebeharrak aldatu egiten dira eta nik izan dudana esperientzia hori izan da.

A enpresaren kasuan nire parte-hartzea ez da hainbestetarikoa izan, erabilera talde konkretu batzuekin bakarrik aritu izan naizelako baina teknikariaren lanak hasieratik zuzenketa eta itzulpenak izan dira. Pixkanaka-pixkanaka enpresako langileek horrelako zenbait lan bereganatu edo ereduak sortu ahala, beste lan batzuk sortu dira, jarraipena egiteko bideak bilatzea, hizkuntza irizpideetarako proposamenak, koordinazio lanak, enpresako eragile edo organo desberdinekin harremanak landu dira, eta horrek guztiak ez du esan nahi motibazio lanik ez zenik egin.

B enpresan hasieratik akuitu lanak egin behar izan dira, abiapuntua hotz hotzean esanda zero zen, lehenengo lana beraz, motorra berotzea zen jendea pentsaeraz aldatzea, ohiturei aldaketatxoak ematea eta horretarako jendea prestatu egin behar da, A enpresan horretarako jendea prestatuta zegoen bitartean. Hasiera batean teknikariarengana inor gutxi gerturatzeko zen, berak lan egiten zuen departamenduko langileak ez baziren. Aipatu ez badut ere oso

garrantzitsua da enpresako toki desberdinetan ezagutzera ematea eta hori askotan egin beharreko lana izan da. Honetarako euskara batzordekideen laguntza ere izan da eta horrela lortu da, fasearen amaieran euskara plan dinamiko bat, jendearen partehartzearekin eta laguntzarekin. Azken urtean zuzenketak eta itzulpenak izugarri ugaltu dira.

Beste hainbat esparru ordea, ukitu ere ez dira esaterako, hizkuntza irizpideena edo jarraipena egiteko tresnena adibidez. Enpresako organoekin ere, azken aldera lortu da nolabaiteko hartuemana, aurrera begira harreman estuago izan beharra adostu da baina hau oraindik gauzatu gabe dagoen gauza bat da.

6.8.2.- BARRUKO ERAGILEAK

Aurreko atalean erabilera planean kanpoko eragilearen figura azaldu dut baina berak pisu handia izan arren, batzuetan gehitxo ere bai, badira enpresa barruan ere paper garrantzitsua jokatzen duten kideak edo taldeak.

Horietako bat koordinatzailea da, ni ibili naizen bi enpresetan zuzendaritzak berak aukeratu zuen egokia iruditzen zitzaiolako euskarari tira egiteko baina askotan eguneroko lanak duen presak eta pisuak, euskararako tarte gehiegirik ez uztea ekartzen du eta horixe gertatu da B enpresan. Enpresan sartzearekin batera berarekin izaten dugu lehenengo harremana, bere bidez lortzen dira hasierako datuak eta informazioa eta planarekin martxan jarri ahala, enpresan burutzen diren ekintza desberdinak berarekin batera koordinatu behar dira.

Koordinatzailea plangintzarako ezarri diren helburuekin ados egongo da eta partehartze aktiboa izango du, hau lortzea erraza ez den arren, enpresako beste eginkizunak direla eta.

Planaren inguruan sortzen diren arazoei laguntzen ahalegindu beharko du eta teknikariarekin harreman estua izan beharko du, iradokizunak egiteko besteak beste. Zuzendaritzatik hurbil dagoen norbait izatea ez da txarra, zenbat eta gertuago egon erabaki guneetatik eta zenbat eta eskailera gutxiago igo behar izan, orduan eta errazago izango da erabakiak hartzea eta enpresan txertatzea. Eginkizun hauek A enpresan nahiko erraz bete dira, euskara batzordean dauden kideek funtzio horiek egoki bideratu dituztelako eta koordinatzailearen lana bera ere azpimarratzekoa da. Aldiz, B enpresaren kasuan, urrunagoko jarraipena egon da eta hori planaren bilakaeran ere antzeman da. Honen atzetik egon daiteke enpresak berak ere, jarraipen zehatzegirik egin ez izana, plangintza oso ondo ulertzen ez zelako edo lehentasunen artean ez zegoelako. Ez da ahaztu behar enpresa tipologiak ere zerikusi handi duela horretan.

Orain arte esan dudanarekin garbi geratu da enpresako Zuzendaritza eta Kontseilu Errektoreko kideak, eragile garrantzitsuak direla, hauek arduratzen dira enpresa kudeatzeaz eta kudeatu beharrekoen artean erabilera plangintza sartuz gero, emaitzak askoz arinago ikusten dira, bestela elementu solte moduan ikusten da, bere inguruan dabilzan bospasei lagunekin, euskara batzordekoak alegia.

A enpresaren kasuan, euskara batzordean, organo hauetatik zeuden kideek ondo baino hobeto bete dute eginkizun hori, proposamen desberdinak luzatu dira, hitz egin da horien inguruan eta ekarpenak egin dituzte.

B enpresan aldiz, euskara batzordean harremanak duen garrantziaz eta lotura lortzeko bide batzuk jorratzen aritu gara, baina azkenera arte ez dugu lortu harreman zuzen zuzena izatea eta gauzatu, epe labur batean gauzatuko da, bertako planean euskara plana ere txertatuz.

Horrez gain eragile enpresako edozein langile izan daiteke eta ez dago zalantzarik egon ere egon direla, bestela hainbat ekimen ez zirela aurrera aterako, hainbat ekimen borondate hutsez egin dira, norberaren ordutatik kanpo. Besteak beste egin diren lanak karpetetako, apaletako, zintzilik dauden karpeten identifikazioak, idatzi ereduak, intraneteko menuak, motibazioa bultzatzeko bertsoak, sloganak, eta beste hainbat ekimen.

6.8.3.- MOTIBAZIOAREN GARRANTZIA

Eragileez ari garenez, ez dut aipatu gabe utzi nahi atal honen barruan motibazioak duen garrantzia. Motibazioa zer da? Azken batean hizkuntza bat ikastera edo hizkuntza horretan mantentzera bultzatzen duten arrazoiak, nahiak eta gogoak.

Horrez gain hizkuntza bat ikasteko ezagutza eta erabilera ere behar dira.

Jendea zerk motibatzen du ordea?

Motibatu gauza desberdinek motibatzen dute, batentzat motibagarria izan daiteke tailerreko makinetako etiketak euskaraz egotea, beste batentzat bi

hilabeteko epean hizkuntza ohituretan aldaketa bat ematea eta azken batentzat, korreo elektronikoz bidaltzen dituen mezuak euskaraz bidaltzea.

Ekintza konkretu bat batentzat motibagarria izan daiteke eta beste batentzat ez, ez duelako ikusten bestea egiten ari den ahalegina zenbaterainokoa den. Horixe gertatu da zenbait kasutan A enpresan, tailerrean alfabetatuen kopurua handiagoa denez eta bulegoan txikiagoa eta sortzeko gehiago. Bulegokoen esku dauden hainbat gauza ez egitea desmotibagarria izan daiteke tailerrekoentzat eta aldi berean baita bulegokoentzat ere, hainbeste eskatzean eta iritsi ezinik ibiliz gero, etsipenean eror daitezkeelako.

Baretze lanak egitea garrantzitsua da bestela gatazka sor daiteke eta gauzak okertu noski. Lan handia da alde batekoak eta bestekoak egiten ari diren aurrerapausoez konturatuaztea, bakoitzaren ahalegina eta esfortzua baloratzuz.

A enpresan alfabetatze lana izan da motibagarria, horretarako taldetxo batzuk bideratu dira, lanean betetzen dituzten orritxoak betetzen trebatzeko.

Motibazio lanak etengabe egin beharrekoa dira. An talde jakin bat egon da motibazio lan guztiak bideratzen eta koordinatzen. Bn ere prozesuaren hasieratik egin dira motorrak berotzeko lanak, ahozko erabileran eragiteko, paretak mezu erakargarriz papereztatuz, tarteka aldatuz, ondoren epe batean utziz, berriz ere martxan jarriaz eta abar.

Horrez gain jendea motibatzeke eta animuak emateko pertsona bakoitzarekin egotea, ezinbestekoa da, jende askorekin egon gara baina guztiengana ez gara iritsi eta noski nahi hori ere ez dugu jaso.

Motibazioa jarrerarekin oso lotuta dago eta hau aipatu nahi dut hainbat jarreratan eragin behar izan dugulako eta ez erdal hiztunen kasuan bakarrik.

Euskal hiztunak ere askotan ez dira hizkuntza aldaketa hori egiteko prest egoten eta arrazoiak oso desberdinak izan daitezke:

- 1) Aldaketa emateko beldurra, trebetasun nahikoa ez daukatelako. Lotsagarri ikusi dezake bere burua euskaraz hitz eginez edo idatziaz.
- 2) Bikoizketa da beste arrazoietako bat, lan bat euskaraz eta gaztelaniaz egin behar izatea. Denbora aitzakiatzat jarrita, gaztelaniaz egiten da normalean ondoren teknikariak euskaratzeko. Euskara bultzatu nahi badugu, alderantzizko prozesua martxan jartzea izan daiteke beste urrats bat, euskaraz sortu eta gaztelaniara teknikariak pasa.
- 3) Aurreiritziak sortzeko aukera. Orain artean gaztelaniaz egin baldin bada, zer esango dute erdal hiztunek, errespetu kontua. Kanpora bideratu behar diren gauza askorekin ere, gauza bera gertatzen da.
- 4) Euskara plana alferrikako ikusten duen jendea ere egon daiteke.

Kasu hauetan beraiek duten eginkizun garrantzitsua azpimarratu behar zaie, belaunaldi berriei ateak irekitzeko lanak, bidea prestatuta uztea, giro erdaldun batean sartuz gero, lan guztia hortik bideratuko dutelako.

Erdal hiztunen aldetik berriz, aldeko eta kontrako jarrerak egon daitezke:

- 1) Hemen ere plangintza alferrikako lan bezala ikusten duen jendea dago. Honen barruan egon daiteke epe motzean, beraien burua enpresa barruan ez kokatzea. Batzuk gogoan dute beste esparru batzuetan, hizkuntza irizpideak ezarri direla, administrazioan adibidez.

2) Hainbat kasutan jarrera eredugarria izaten da. Askotan gehiago da euskal hiztunok gaizki hartuko dutela pentsatzea, errealitatean gertatzen dena baino. Horretarako noski, galdetu egin behar zaie eta partehartze aktiboa izatea eskatu. Emaitzak hor daude. Askotan proposamen konplexuagoak beraiengandik jasotzen dira.

Beraz jarrerak eta iritziak ahalik eta jende gehienak edukitzea komeni dela iruditzen zait, nola atakatu edo zer egin jakiteko ere aukera izango dugulako, eta gatazkak sortzea ekidingo dugulako.

Honetan guztian, lidergoa enpresak berak bereganatzea eta bere gain hartzea izan daiteke irtenbidea, Zuzendaritzak berak adibidez. Baina hori ikusteak ematen ditu lanak eta horregatik plangintzatan pisu handiagoa euskara teknikariak dauka.

7.- EBALUAZIOA

Ebaluazioa izan da plangintzan zehar eginbeharretako bat, alegia alde zurretik zehaztutako helburuak zein neurritan betetzen diren aztertzea.

Enpresa bakoitzak, enpresa bezala dituen helburuen jarraipena egiteko, adibidez "halako zonatan 2002an hainbesteko salmentak izatea" zenbakiak erabiltzen dituzte, helburu neurgarriak izaten dira eta ez daukate inolako zailtasunik izaten, datu objektiboetan oinarritzeko.

Neurketa bat egiten den bakoitzean ebaluaketa bat egiten ari gara eta horretarako tresnak izatea ezinbestekoa da. Jo dezagun adibidez ahozko

erabilera neurtu nahi dugula, horretarako bakoitzak emandako datuetan oinarrituta, helburuak jartzen dira eta epe bat pasatakoan ebaluaketa bat egiten da. Hala ere, esan beharra dago ahozko erabilera modu objektiboan jasotzea nahiko zaila dela, jendeak emandako datuetatik abiatuta, horregatik erabilera jasotzeko kale neurketaren metodologia erabiltzen ari gara momentu honetan.

Kontua da ebaluaketarako tresna ahalik eta fidagarrienak behar ditugula, enpresa batean euskararen erabilera zenbaterainokoa den ikusteko.

Prozesuaren hasieran egin ez genuen bezala, oraintxe egin berri da bi enpresetan egoera benetakoa zein den ezagutzeko, aplikazioa informatiko baten bitartez diagnostiko zehatz bat. Oraindik datu zehatzik ez daukagu, zenbakitan daturik emateko moduan ere ez gaude baina aurrera begira urrats eta tresna garrantzitsua izango da.

Orain arte ebaluaketa egiteko balorazioa kuantitatiboa baino gehiago kualitatiboa egin da, irudian eta errotulazioan izan ezik.

Honi gehitu behar zaizkio urtero, garai modutsu honetan zuzendaritzan aurkezteko egin diren ebaluaketa txostenak eta erabilera talde eta euskara batzordean egindakoak ere bai.

Gauzak honela ondoren egin dudana zera izan da, orain dela hiru urteko egoera azaldu dudana bezala, epe honetan eman diren urratsak, aurrerapausoak eta helburuen betetze maila zenbaterainokoa izan den.

Edonola ere, enpresa munduan saiakera berezia egin beharra dago, irakaskuntzan "Ulibarri programa" edo herrietan eskaintza neurtzeko, Ofercat ereduak prestatu diren bezala, esparru honetarako ere gauza berriak egiteko edo daudenetan berrikuntzak egin eta egokitzeko. Honekin batera esan nahi

dut ebaluatzeko modua enpresako sisteman sartzea, ereduak izatea bezain garrantzitsua dela, alegia, ebaluaketa edo neurketa hau nork eta nola egin behar du, euskara teknikariak besterik gabe. Eta ondoren, informazioa nork zabaldu behar du enpresan . Noraezean ibiltzea baino egokiagoa da kalitate sailetik bideratzea edo besterik gabe enpresak euskara batzordekideei ahalmen hori ematea. Honekin lortuko dugu enpresako beste elementu baten gisa ikustea euskara plangintza eta jarraipena ere berak egitea..

7.1.- EUSKARAREN ERABILERA ESPARRUZ ESPARRU, HIRU URTEREN ONDOREN

Hasieran esan dugun bezala, lan munduan euskara eta gaztelania etengabeko harremanetan daude eta gaztelaniak du oraindik ere, askoz indar handiagoa. Normalizazio bide bat lortu nahi baldin badugu, jarraitu behar den bidea honako hau da, behintzat beste esparru batzuetan ematen hasita daude lan honekin eta lan munduan ere zerbait egin beharko da, arlo bakoitzeko berezitasunekin:

**Lehenengo urratsa euskararentzat garrantzitsuak diren pertsonak elkartzea da, euskarak beraientzat garrantzia izan beharko du. Euskara abiapuntutzat hartu eta normalizazio bideari ekin. Ikastola eta euskara elkarten sorrerako prozesua, urrats honen adibide dira.

Lehen pauso honek euskaldungoaren artean ilusioa sortzen du eta komunitatea egituratzen hasten da. Pertsona eta erakunde bakoitzak bere lana betetzea garrantzitsua da baita bere funtzioa ulertzea eta betetzea ere. Eskola baten kasuan adibidez, ezagutza transmititzea.

Hizkuntza gutxituak ordea, baliabideak behar ditu galdutakoa berreskuratzeko. Lehenengo urratsa, normalizazio prozesuaren barruan hizkuntza normalizatu nahi izatea da baina legeak prozesu hori babestu eta lagundu behar du. Alderdi honetatik, lan dezente dago oraindik egiteko.

Honela funtzioen berreskurapen bat ematen da, hizkuntza eguneroko zereginak betetzeko tresna baldin bada behintzat. Esparru batzuetan funtzio horiek berreskuratzen hasi da familian, irakaskuntzan, komunikabideetan eta lan munduan ere lehenengo urratsak ematen hasi dira.

Honela, euskaraz bizi eta funtzionatzen duten harreman sareak, gehitzea eta sendotzea izango da helburu nagusia.

Horren guztiaren ondorio izango da, euskaraz gustura, harrotasunez bizi diren euskaldunak izatea, bakoitzak bere buruarekin autokonfiantza izatea.

Bide hau lortu nahian bi enpresa hauetan lan garrantzitsua egin da, behintzat lehenengo urratsak eman dira eta emaitza batzuk ere lortu dira. Honek ez du esan nahi guztia egin denik, aurrera begira zer egina badago eta oraindik ere lanarekin jarraitu beharko da.

Hasieran euskara plangintza hasitakoan egoera zein zen azaldu dut eta orain hiru urte hauen ondoren emaitza zein den azalduko du, gehien bat ebaluazio kualitatiboa izango da. Ebaluazio kuantitatiboa oraintxe eginda baina

oraindik datu fidagarririk ez daukadanez, balorazio kualitatiboarekin geratuko naiz.

7.1.1.- A ENPRESAN

1.- Ahozko erabilera

Hizkuntza ohituretan aldaketa handiak eman dira batez ere bulegoetan, guztia gaztelaniaz egiten zutenak orain saltoak emanez euskaraz egiten dute. Oraindik ,bazkal osteko tertulietan eta jangelan, dena euskaraz egitea ez da lortu.

Tailerrekoen artean, euskaraz egiten jarraitzen da lehen bezala, terminologia aldetik egin da ahalegin berezia eta hainbat termino sekula ez zituztela erabiliko esaten zutenak gaur egun normal erabiltzen dituzte, askotan konturatu gabe. Ahalegin handia egin da alderdi honetan baina gehiago egiteko aukera ere badago.

Laneko bilera asko euskaraz egiten dira; erdal hiztunak dauden bileretan gaztelaniaz egiten da eta guztiak euskal hiztunak izan arren, ohiturak aldatzea lortu ez den beste bilera bat ere badago.

Emakumezkoen artean dago gaztelaniara jotzeko joera handiagoa.

Erabilera jasotzeko hasiera batean beraiek emandako datu subjektiboetan oinarritu ginen, beraiek esan zuten harremana zuten lankideekin ehuneko zenbatean hitz egiten zuten euskaraz eta fasean zehar gehikuntzak

eman dira. Kale neurketarako metodologiaren bitartez neurketa bat egiten ari gara une honetan.

Helburuen betetze mailari nahiko bat eman dakioke, hobetzeko asko dago oraindik.

2.- Irudian eta errotulazioan

Lehenengo urtean heldu zitzaien lan honi, bulegoetako ehunka karpetan zeuden identifikazioak, tailerreko eta biltegietako armairutxo eta apaletako txarteltxoak bildu egin ziren lehenik eta behin. Ondoren euskaraz jarri ziren eta sail desberdinetan berdin jokatzeko, talde batek irizpideak hartu eta hitz guztiak adostu zituen.

Hauetako asko euskaraz bakarrik jarri dira, biltegian zeuden hitzekin laguntzeko hiztegitxo bat ere egin zen baina behar handirik ez zen izan, jendea armairu bakoitzera joaten ohituta baitzegoen. Aldaketa izugarriak eman dira esparru honetan. Makinen kontrolerako identifikazioak geratu dira aldatu gabe baina oraintxe ekin zaio lan honi, apurka-apurka egiteko. Hala ere, makina berriren bat jarri behar izan denean, euskaraz eskatu dira eta euskaraz daude. Ehuneko ehunean ez, baina neurri batean aldaketa izugarriak eman dira. Helburuen betetze maila ona izan da.

3.- Idatzizko harremanak

Langile guztiei banatu behar zaizkien idatziak, oharrak, nomina, laburpenak eta abar euskaraz banatzen dira, ohar sinpleak euskaraz bakarrik ere bai.

Barrura begira dauden inprimaki ereduak euskaraz jarri dira, horietako asko euskaraz bakarrik eta bete ere neurri handi batean euskaraz betetzen dira.

Zabalkunde handia duten bileretan erabiltzen den dokumentazioa euskaraz bakarrik erabiltzen da, hobekuntza bilerak adibidez. Organoetako bileretan dokumentazio guztia gaztelaniaz banatzen da eta batzar orokorrean ere, idatzia hasiera batean gaztelaniaz baldin bazegoen orain izenburuak eta taulak euskaraz jartzen dira.

Idatziarekin egin den beste gauza garrantzitsu bat ereduak egitea izan da urtetik batera errepikatzen direnekin. Tailerreko idatzietan ere aldaketak antzeman dira.

Betetze maila ona izan da.

Aurrera begira idatzi luzeagoak, organoetako bileretara aurkezten diren idatziak eta txostenak euskaraz egitea da helburua, hau da gero eta gai konplexuagoi heldu beharko zaie. Ikusi egin beharko da zenbateraino sartu nahi duen enpresak arlo honetan.

4.- Aplikazio informatikoak

Aplikazio informatikoen esparrua oso zabala da eta gauza batzuk, barrurako programaren batzuk euskaraz jarri dira, hala ere, gestiorako erabiltzen dituzten aplikazio informatiko handiak ukitu ere ez dira egin. Hemen ere esparru zabala geratzen da hemendik aurrerako.

5.- Jarrera eta sentsibilizazioa.

Azken hiru urte hauetan enpresako eta herriko errealitate soziala egia bihurtu da, euskal hiztun asko dituen enpresa da. Gaztelaniaz funtzionatzen bazuen ere, euskaraz funtzionatzeko lehenengo urratsak eman ditu behintzat. Baina ez da horregatik motibazio eta sentsibilizazio lanik egin gabe geratu. Ezinezkotzat jotzen zuten zenbaitzuk euskaraz idazten hastea, egun asko ez dira batek esaten zidala “zeinek esan behar zigun guri hainbestearaino idatzi behar genuela euskaraz lehen dena gaztelaniaz egiten genuenean”. Kontzientziario, jarrera aldaketa handia egin da. Momentu honetan kontziente dira beraiek emandako pausoak txikiak direla baina hurrengo belaunaldiek, aipatzen ari naizen honi urte asko ere ez zaizkio falta erretiroa hartzeko, bideak zabalik edukiko dituztela beraiek hasitako bideari ekiteko.

Erabilera taldeak tresna eraginkortzat jotzen dituzte, gogoratzeko, ez ahazteko eta horrekin batera plangintzaren atzetik norbait egon izana positiboa izan da. Erabilera taldeko lanaren bidez lortu dira gauza asko.

6.- Hizkuntza irizpideak

Prozesuaren hasieratik, lehenengo urtetik irudi eta errotuluetarako identifikazioak eta idatziak batzearekin batera, berehala konturatu ziren euskara batzordekoak, horiekin guztiekin nola jokatu behar zen erabaki beharra zegoela, zeintzuk jarri euskaraz bakarrik, zeintzuk ele bietara edo zein utzi gaztelaniaz bakarrik. Urtebete beranduago, beste hainbeste gertatu zen idatzi laburrekin eta inprimaki ereduekin. Proposamen hauek euskara batzordeak egin zituen eta zuzendaritzan onartu ziren. Baina ez dira puntu hauen inguruan bakarrik hartu erabakiak, baita puntualki sortzen ziren gaien inguruan ere. Une honetan irizpide guztien bilduma egiten ari dira baita jarraipena egiteko modua ere.

7.1.2.- B ENPRESA

Kasu honetan ere goian aipatutako esparru bakoitzaren azterketa egingo dut.

1.- Ahozko erabilera

Nik esango nuke lehen baino askoz ere gehiago hitz egiten dela momentu honetan euskaraz, zenbait sailetan euskal hiztun asko egon arren entzun ere ez baitzen egiten euskaraz. Beste batzuekin berriz, beti euskaraz hitz egiten zen. Sail horietan eman da aldaketarik handiena, erabilera oraindik

handia ez izan arren eta aukerak askoz handiagoak izan, jarrera desberdina da, pertsona konkretu batzuk egindako saiakera eta jarritako borondateagatik. Euskaldun berri edo erdizka jakin arren komunikatzeko gai diren batzuegan ere, aldaketa izugarriak nabaritu dira, euskaraz zekitenik ere ez zekiten askok. Erabilera taldeak informazio hau emateko eta zabaltzeko baliagarriak izan dira.

Laneko bileretan eta organoetako bileretan, euskarak oso erabilera txikia du; kopuru txikiko eta oso jende jakinak osatutako bilerak dira euskaraz bakarrik egiten direnak. Batzar Orokorretan azken urteotan sarrera txiki bat euskaraz egitetik, puntu osoak garatzera pasa dira, urrats oso garrantzitsuak dira.

Hala eta guztiz ere, euskara batzordeak egindako balorazioan betetze maila txikia izan dela esan du.

2.- Irudia eta errotulazioa.

Zalantzarik gabe hauxe izan da betetze maila handiena izan duen helburua, egia esan, enpresan jarritako proiektu eta azterketek horretarako aukerak eskaini ditu eta horiek aprobetxatzen jakin izan da.

Bulegoetan karpetak eta armairuetako identifikazioak, panelak eta argibide orriak, ohar tauletako izenburuak, tailerretan serieak edo zelulak bereizteko errotuluak, pieza, material eta tresnen izenak, zerrendak eta abar euskaraz jartzen lan handia egin da eta aurreko enpresan horrelako gauza asko euskaraz bakarrik jarri baldin badira, hemen ele bietan jarri dira. Ele bitasunaren aldeko apustua egin zen erabilpen orokorreko identifikazioekin,

baina ulertzeko zailtasunik ez dutenak edo erabilpen pertsonala dutenak euskaraz bakarrik ere jarri dira.

3.- Idatzia

Esparru honetan ere makinatxo bat lan egin da, besterik ez baldin bada gaztelaniaz jarri ondoren , kendu eta berriz ere euskaraz jartzen. Euskara batzordeko kideak baita teknikaria bera ere askotan joan dira, zabalkunde handia duen dokumentu bat jarri duen pertsonarengana.

Horren ondorioz pertsonal sailetik, organoetatik ateratzen diren idatzi gehienak, ehuneko ehunean esatera ez naiz ausartzen, ele bietan jartzen dira momentu honetan. Oraindik ere gogoratze lan hori egin behar izaten da.

Inprimaki eredu eta plantilak batzuk aldatu dira, hiru negozio izatean eta bakoitzean desberdinak izatean, galarazi egin du portzentaje handiago batean aldaketa ematea. Hala ere, egindako lana garrantzitsutzat jo daiteke. Dokumentu hauek betetzerakoan erabiltzen den hizkuntza berriz, gaztelania izaten jarraitzen du, oso zirkuitu konkretua egiten duten hiruzpalau dokumentu izan ezik. Oraingoz lan horretan ez dugu gehiegi sakondu.

Enpresa osora iristen diren dokumentu luze batzuk ere euskaraz jarri dira baina lan bileretan, erabiltzen diren dokumentu, txosten eta taula guztiak edo gehientsuenak gaztelaniaz daude. Gehientsuenak diot bakarren bat euskaraz ere jarri delako.

Idatzian ere ele bitasunera jo da orokorrean eta aurrerantzean ere, hala izatea espero da, Betetze mailari dagokionez, nahiko batekin baloratu dugu

idatzi arloan egin dena. Ele bitasun honen barruan lehen ere aipatu dut baina bikoiztearen kontua dago, askotan bietara ez jartzeagatik gaztelaniaz bakarrik jartzen da eta horretan eragin zuzena du, eguneroko lanak. Presaka ibili behar izaten dira hauetako asko,erlojupean eta horren ondorio dira gertatzen direnak.

4.- Aplikazio informatikoak.

Esparru hau oso gutxi landu dugu. Aplikazio konkretu batzuetatik ateratzen diren dokumentuak ele bietara jarri dira baina menu eta programei dagokionez ezer gutxi egin da, mantentze lanetarako programa txiki bat izan ezik.

Horrekin batera beste lan garrantzitsu bat intraneta martxan jarri izanarena da eta horrekin batera ,jarritako menu guzti guztiak ele bietara jarri dira, nahiz eta menu konkretu batek gaztelaniaz dagoen dokumentu batera eramaten gaituen. Intranetaren barruan, publikatzaile bakoitzak sartzen dituen testuak aldatzeko ahalegina ere egin da. Oraindik formalago heltzeko asmoa ere badaukagu, enpresa osoko zabalkundea izango duen tresna izango delako eta hala den momentutik, ahalegin berezia egin beharra dagoelako. Hala ere, helburu bezala gauza gehiegirik ere ez zegoen aurreikusita eta horregatik betetze maila nahiko ona izan dela esan da.

Oso kontuan eduki behar dugun helburua da, gaur egun gero eta gauza gehiago aplikazio informatikoetatik ateratzen direlako.

5.- Jarrera eta sentsibilizazioa.

Helburu bezala oso garrantzitsua izan da eta betetze maila ere ona izan dela adostu dugu. Kostata baina azkenean jendea mugitzea eta ekintzetan parte hartze lortu da baina ez da egun batetik bestera egin den kontua izan, behin eta berriz ekin behar izan da. Lehentxeago aipatu dut eta beste behin ere errepikatuko dut, euskal hiztunengana eta erdal hiztunengana hurbildu eta xaxatu behar izan direla guztiak ere, emaitzak ikusten hasteko eta neurri batean lortu da.

Aurrerantzean ere oso kontuan eduki beharko dugu helburu hau.

6.- Hizkuntza irizpideak

Arlo honetan oraindik lan dezente egin beharra dago, egia da euskara batzordeak hainbat arlotarako landu dituela hizkuntza irizpideak, besteak beste irudi eta errotulaziorako eta idatzirako. Idatziaren kasuan, inprimakiak aldatzerako garairako eta eredu berriak martxan jarri behar direnerako. zuzendaritzara ere pasa zen proposamena. Neurri bateko onarpena eman zitzaion baina enpresan, inon ez da agertzen arlo hauetarako, zer erabaki den eta zabalkunderik ere ez zaio eman. Beste arlo batzuetan hizkuntza irizpideak ezartzen hastea ere interesgarria iruditu zaigu baina ez da ezer martxan jarri.

Zuzendaritzari proposamen berri bat luzatu zaio eta datorren urterako bideratzen hasteko asmoa dago.


Arlo honetako betetze maila ez da ona izan , ezta gutxiagorik ere. Baina benetan garrantzitsua iruditzen zaigu gai hau lantzen jarraitzea, euskara plangintzak aurrera egitea nahi baldin badugu.

Hiru urteko fase honen ondoren, enpresako langile guztiei eman zaie, plangintza baloratzeko aukera eta orokorrean langileek egin duten balorazioa euskara batzordeak egin duenarekin bat dator eta hala adierazi dute emaitzek. Arlo guztiak gainditutzat eman dituzte baina puntuaziorik altuena, sentsibilizazio arloan egindako lanek eta irudian eman diren aldaketek jaso dute.


Hau izan da laburtuta enpresa batean eta bestean hiru urte hauetan erabilera planek eman dutena, hemendik aurrera eta behin diagnostikoko datuak lortu eta interpretatzen ditugunean, berriz ere, plangintzak izango dituen helburuak aztertzen hasi beharko dugu. Bi enpresek modu batera edo bestera, oraindik zehaztu gabe dago nola, jarraitu egin nahi dute eta prozesu geldiezin moduan ikusten dute. Denbora izango da lekuko eta ikusiko dugu zein norabide hartzen duen.

Hau da enpresa bakoitzean euskararen egoera soziolinguistikoa 2002an

A ENPRESA



B ENPRESA



Irudi hauek eta orain dela hiru urtekoak ikusi ondoren ondorioztatu dezakegu, aldaketak egon direla. B enpresaren kasuan eman da aldaketarik handiena euskal hiztunei dagokionez, %47a izatetik %59 izatera pasa dira eta horren arrazoiak aurkitzerakoan, euskal hiztunen aldetik egon den igoera azpimarratu behar dugu. Enpresan hazkunde garrantzitsua eman da langile kopuruan eta horrekin batera, aldaketa bat eman da, sartzen diren langile gehienak euskal hiztunak direlako. Honekin noski, urrats garrantzitsua eman da. Hala ere, prozesuari benetako bultzada emateko komeni da erdal hiztunak euskara ikastera bultzatzea, batezbesteko adina 35 urte ingurukoa dela kontuan izanda.

8.- ONDORIOAK

Lanarekin amaitzeko hiru urteko prozesu honek, enpresan izan dituen ondorioak aztertu nahi ditut. Egia esan, bi enpresa hauetan lanean hasi ginenean, hilabete pare bateko denbora nahiko luzea iruditzen zitzaigun eta gauzak lortu ere lortuko genituela uste genuen. Denborarekin ordea, gauzak aldatzeko denbora behar dela konturatzen gara, ezin dela guztia egun batetik bestera ezta hilabete batetik bestera aldatu.

Jendearengan kontzientziazio aldaketa garrantzitsua eman behar da, norberaren eguneroko lanean aldaketa garrantzitsuak ematea suposatzen duelako.

Horretan berebiziko garrantzia du, enpresako erabakitze ahalmena duten organoek benetako inplikazioa izatea eta hori ere ez da momentu batetik bestera egiten.

Baina inplikazioa izatearekin ere ez da nahikoa, enpresak bere egituretan sartu behar du euskara plangintza, bere gestio planean edo bere kalitate sisteman euskararen inguruan hartzen diren erabakiak. Beste edozein helburu lortu den ala ez aztertzeko egiten duen bezala, gauza bera egin beharko du enpresak, nahiz eta berari bitarteko batzuk eskaini beharko zaizkion.

Nik ondorio moduan bi gauza esango nituzke, batetik maratoi baten aurrean gaudela eta ez dela ehun metroko lasterketa, denbora eragile garrantzitsua dela alegia, eta bestetik enpresak plangintza bere gai hartzea, bertan txertatzea ere behar beharrezkoa dela.

Enpresari plangintza jartzeak ze ondorio on ekarri ote dizkion esatea ez da beharbada errazegia, enpresaren lehenengo helburua edo eginkizuna ahalik eta gehiena saldu eta urteko kontuetan ondo ibiltzea baita. Edonola ere, aipatzea merezi duen alderdi batzuk badaudela iruditzen zait , batetik zaharkituta zeuden hainbat eta hainbat inprimaki eta idatzi eredu aldatzeko aukera eman du, bestela seguruenik egingo ez zen lana, bestetik norbera bere hizkuntzan erraztasun gehiagorekin eta gusturago sentitzea, aukera hori behintzat izatea, A enpresaren kasuan horretarako aukera badago, Bn zailagoa da. Euskara eta gaztelania parekatzen hastea, hau oraindik urruti dago errealitate bihurtzetik. Inguruarekin duen konpromisoagatik, herria, bailara euskaldunak dira azken finean. Hauek aipatzen ditut euskara teknikari lanetan aritu izan naizen aldetik ikusi ditudalako eta enpresako eragile desberdinek, badute horrela dela esateko argibiderik . Hala ere, gehienak honetaz ez dira konturatzen. Gauzak euskaraz egiten hastea, aldatzen ari denaren zantzuak izan ditzake. Horrela izango ahal da!

9.- BIBLIOGRAFIA

MARKO, J. Inazio (1995) Hizkuntza plangintza herrietako elkartean. Azterketa konparatiboa. *Bat-Soziolinguistika Aldizkaria*, 15

- **(1996)** Hizkuntzaren normalizaziorako mikroplangintza proiektua "CDH" kirol elkartean. *Bat-Soziolinguistika Aldizkaria*, 20/21

- **(2000a)** Hizkuntza prozesuen ingeniarietza. *Bat-Soziolinguistika Aldizkaria*, 34

- **(2001b)** *Hacia un marco teórico-metodológico para el cambio lingüístico en organizaciones*. VII. Congreso de Sociología-n aurkeztutako komunikazioa. Salamanca, 2001eko irailean.

Sánchez Carrión J.M. (1987)Un futuro para nuestro pasado.